# ttipi-ttapa

196. zenbakia • 1996ko abenduak 19 • XV. urtea


TELLETXEA

# Eguberrietako ospakizunak gain-gainean ditugu

Euskal Herri osoan garai hauetan ospatzen den olentzeroaz gain, gure eskualdean Urteberri edo urte zahar egunean etxez-etxe kantari eta eskean ibiliko dira egunotan.

**3** Isabel LAKAR: **Gazteek emozioak plazaratzeko duten gaitasuna aprobetxatu nahi dut**

**19-22** GEHIGARRIA: **Urtexaharreko afariak**.

**32** Kirolak: **1996ko izendegia**: Urteko izenik aipagarrienak kiroletan.

**Ale honekin batera:** Bi aldizkari gehiago izanen dituzu eskuartean: **Lurra aldizkaria Etxetik Plazara**.

**☞ TTIPI TXARTELA**

## Euskara eta zonako garapen ekonomikoa uztartzeko tresna

TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAk salduko dituen txartelak erosiz, gauza asko lor daiteke eta lor ditzakezu; euskarazko telebista sortzen lagundu, eskualdeko dendak bizkortu eta erosketak merkeago egin. ☞ 4





APROBETXA ITZAZU GURE
ESKAINTZAK
urte batean
ordaintzeko
aukerarekin
interes-tasarik
gabe!!
MUEBLES
AMETS
mobleak orokorrean
Erakusketa
Bidasoa karrika, 45 eta 60 • BERA Tfnoa: 948-630537




BENTA-BERRI
LARRUAREN ETXEA
Ibardingo Gaina • ✆ 948.63 07 08 • BERA
EGUNERO IREKIA DUGU
BAITA LARUNBAT
ETA IGANDETAN ERE
goizeko 9,30etatik
arratsaldeko 7ak arte
Larruzko arropak eta osagarriak
Goi mailako kalidadea eta
aukerarik zabalena
hementxe bertan
MERKEALDIAK
ERREGE EGUNA
BITARTE

DATUAK..........

❖ *Hilabete pare bat darama Isabel Lakar lesakarrak Bortzirietako Gazte Abesbatzarekin*

❖ *Honetaz gain, Igantziko abesbatza zuzentzen du eta tarteka Elizondokoa ere.*

❖ *Hamabortz lesakar, hamar beratar, zortzi igantziar eta bi etxalartar daude momentuan Gazte Abesbatzan.*

❖ *Momentuz Bortzirietan emanen dituzte kontzertuak.*

TESTUA ETA ARGAZKIA:
**OSKAR TXOPERENA**

☞ **Isabel LAKAR** *Bortzirietako Gazte Abesbatzaren zuzendaria*

# "Gazteek emozioak plazaratzeko duten gaitasuna aprobetxatu nahi dut"

**NONDIK SORTU DA EDO NORI GOGORATU ZAIO TALDE GAZTE HONEKIN LANEAN HASTEA?**
Herrietako abesbatzen etorkizunaz kezkatuta pentsatu nuen talde berri honetan. Nere ustez, jende berriaren falta da orain dauden taldeen arazorik larriena, eta talde berri honek, berez izanen duen garrantzia ahantzi gabe, lehengoak indartzeko balioko duela espero dut. Horretarako lanean ari gara.

**NOR SARTZEN AHAL DA ABESBATZA BERRI HONETAN?**
Nahi duen guziak hartzen ahal du parte. Gehienek solfeoa baldin badakite ere, hori ez da nahitanahiezko baldintza, ez dakitenek oraindik gogo eta ilusio gehiago paratu beharko dutela jakinik beti ere. Ez diogu inori aterik itxiko, alderantziz, kantatzea gustoko duen edonor gure entsaioetara hurbiltzera animatu nahi dut hemendik.



«Hemendik urte pare batera emanen du taldeak bere egiazko itxura»

**ERRAZA AL DA HERRIEN ARTEAN BETITIK IZAN DIREN TIRABIRAK GAINDITZEA?**
Ez dut nik deus sumatu herri ezberdinetakoen artean, orain arte behinipein. Gehienak, gauza batean edo bertzean, nerekin ibilitakoak dira, eta, gazteak direnez, hagitz mentalitate irekikoak dira. Ez dut alde horretatik arazorik ikusten.

**ZEIN DIRA TALDE BEZALA PLANTEATU DITUZUEN HELBURUAK?**
Abestea da gure helburua, gauza xinplea badirudi ere, baina hitz horrek duen erranahi guziarekin. Nik uste hemendik urte pare batera edo emanen duela taldeak bere egiazko itxura, oinarrizko errepertorio batekin, baina, behar bezala interpretatua.

**IGANTZIKO KONTZERTUA ADITUTA, PENTSATZEKOA DA GAUZA BERRIAK EGITERA HELDU ZARETELA.**
Bai, gazteen errebeldia eta konplexu falta guziz aprobetxagarria dela iduritzen zait. Helduak bihurtzen garen heinean emozioak agertzeko gaitasuna galtzen dugula iduri du. Gauza berriek ere izanen dute bere lekua, dudarik gabe.

**ZEIN IZAN DA ORAIN ARTE JASO DUZUEN ERANTZUNA?**
Gauzak hagitz ongi doazela aitortu behar dut. Ez nuen uste hasi eta segiduan hogeita hamabortz lagun izanen ginenik. Bertzalde, astean behin biltzen gara Lesakan entsaiatzera eta jendearen erantzuna ez da, inondik ere, kexatzeko modukoa.

*"Gehienek solfeoa baldin badakite ere, hori ez da nahitanahiezko baldintza, ez dakitenek oraindik gogo eta ilusio gehiago paratu beharko dutela jakinik, beti ere. Ez diogu inori aterik itxiko."*

# TTIPI TXARTELA

# Euskara eta zonako garapen ekonomikoa uztartzeko tresna



**TTIPI-TTAPA Fundazioak salduko dituen txartelak erosiz, gauza asko lor daiteke eta lor ditzakezu; euskarazko telebista sortzen lagundu, eskualdeko dendak bizkortu eta erosketak merkeago egin. Orain hasiko den kanpainaren bitartez, 1.000 bazkide lortzea espero du TTIPI-TTAPAk.**




***TTIPI-TTAPA Kultur Fundazioa***
***Nafarroako mendialdean euskal kultura sustatu, euskararen normalizazio soziala bultzatu eta herri-komunikabideak babestu eta laguntzea helburu duen Fundazioa izanen da. Gainera, eskualdeko garapen kultural, sozial eta ekonomikoaren alde ere lan egiteko asmoarekin sortuko da. Hori guztia erdiesteko, alde batetik eskualdeko erakunde, elkarte eta enpresen partehartzea bilatu nahi da, eta bertzetik, ahalik eta herritar gehienen bazkidetza. Orain hasiko den kanpainaren bitartez 1.000 bazkide lortzea espero du TTIPI-TTAPAk. Hauek izanen dira Fundazioaren bitartez proiektu honen egiazko euskarri ekonomiko, filosofiko eta editoriala.***

Fundazioa erregistratzeko tramitaziotan hasia da TTIPI-TTAPA, eta sarreran aipatu diren helburuak lortzeko bidean, TTIPI-TTAPA aldizkaria sendotzea eta Telebista martxan jartzea dira momentu honetan esku artean dituen asmo nagusienak. Izan ere, Telebistaren proiektua arras garrantzitsua dela uste du TTIPI-TTAPAk eta zentzu horretan ari da lanean momentu hauetan. Bainan guzti hori lortzeko, bada bitartean bertze proiektu bat martxan jarriko dena: TTIPI TXARTELA.

## Helburu bikoitzeko txartela

TTIPI TXARTELA Fundazioaren bazkideek izanen duten txartela da, eta berekin bi helburu lortu nahi dira. Alde batetik bazkideen identifikazioa, eta bertzetik, zonako garapenaren alde lan egiteko tresna xume bat martxan jartzea. TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAk bereak egiten dituen helburuen artean dago eskualdeko garapen ekonomikoaren alde lan egitea, eta TTIPI TXARTELAren bitartez, gure herrietako denda eta zerbitzuen garapenaren aldeko apostu egin nahi da.

TESTUAK:
**JOXEMAUEL IRIGOIEN**



Mendialdeko dendek duten egoera zaila ezaguna da, Hipermerkatuek eta hiri haundiek egiten duten konpetentzia ikaragarria baita. Gauzak horrela, txartel honek bere aportazio xumea egin lezake egoerak oraindik gehiago ez makurtzeko.
Helburu guztiak elkarlotzeko, 31 denda eta zerbitzuk tratua egina dute dagoeneko TTIPI TXARTELArekin eta prest daude Fundazioko bazkideei abantaila batzuk eskaintzeko eta erosketetan deskontu inportanteak egiteko.

### Telebista sortzen lagundu, eskualdeko dendak bizkortu eta erosketak merkeago egin

Txartelaren helburua zonako erosleak zonako denda eta zerbitzuetan kontsumitzera animatzea da; Irun, Iruñea edo bertze hirietara erostera joateko ohitura frenatu eta hemen ditugun zerbitzuak erabiltzeko kontzientzia sortzea. Azken finean, eskualdeko garapenaren alde lan egiteko kontzientzia zabaldu beharra dago. Bainan horretarako, ez da nahikoa informazioa ematea. Bezeroari txartel bat erakusteagatik deskontuak eskaintzen bazaizkio, errazagoa izanen da indartu diren joerak frenatzea eta bertan kontsumitzen jartzea.

### Urtarrilatik aurrera salgai

TTIPI TXARTELAK 5.000 pezetetan erosi ahal izanen dira urtarrilatik aurrera. Urte bateko balioa izanen dute. Interesatuta zaudetenok aski duzue parean duzuen txartela bete eta bidaltzea edo bestenaz telefonoz deitzea. Gainerakoan, herriz herri, TTIPI-TTAPAK akreditatutako saltzaileak ibiliko dira. Animo! ■

## ABANTAILA HAUNDIAK DITUEN TXARTELA

### ① Eskualdean kontsumitzeko filosofia zabalduko da

TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK zabalduko duen filosofia eskualdean kontsumitu eta gastatzearena izanen da, horrela bultzatuko baita eskualdeko garapena.

### ② Herri eta eskualde 'sentimendua' indartu eginen da

TTIPI TXARTELAren kanpainarekin herri eta eskualde 'sentimendua' zabaltzen lagunduko da, eta erosketak egiterakoan, tokian tokiko denda eta zerbitzuek duten garrantziaz kontzientziatuko dira herritarrak.

### ③ Erosketak merkeago TTIPI TXARTELA dutenentzat

TTIPI TXARTELArekin akordioa sinatu duten denda, zerbitzu eta tailer bakoitzak, berak nahi duen deskontua eskainiko du. Deskontu hori, banaz bertze, % 10aren ingurukoa izanen da, batzuk dexente gehiago, bertze batzuk gutixeago. Txartela erosten dutenek horren inguruko informazio puntuala izanen dute.

### ④ Merkatariek salbuespenak egiteko aukera izanen dute

Dendariak hala nahi izanez gero, merkealdietan eta promozio berezietan ez da aplikatuko deskonturik txartela erakusteagatik.

### ⑤ Akordioa sinatzen duten enpresen publizidadea

TTIPI TXARTELArekin akordioa sinatu duten enpresa guztien berri emanen da TTIPI-TTAPA aldizkarian, saltokiaren helbidea, telefonoa eta eskaintzen duen abantaila azalduz. Informazio honi tarte zabala eginen zaio puntualki.

### ⑥ TTIPI TXARTELAren promozioa TTIPI-TTAPAren bitartez

TTIPI-TTAPA aldizkaritik eta TELEBISTAtik jendea animatuko da TTIPI TXARTELA erabiltzera eta bidenabar, ematen dizkion abantailak aprobetxatzera gonbidatuko.

### ⑦ Euskarari laguntzea ongi ikusita dago jendaurrean

Akordioa sinatua duten eta aurrerantzean sinatuko duten dendari eta zerbitzuek irudi ona izanen dute jendearen aurrean, argi baitago merkatari horrek euskarari laguntzen diola, eta aldiberean, gure eskualdeko garapenaren aldeko apostua ere egin duela.

### ⑧ Erosle segurtatuak dendarientzat

Kanpaina honen lehen fasean 1.000 bazkide egin nahi ditu TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK. Orain arte aipatutako guziari esker, TTIPI TXARTELArekin tratua egin duten dendariek 1.000 per-

## Deskontuak eskainiko dituzten denda eta zerbitzuak

| | |
|---|---|
| AGARA KIROLDENDA | Bera |
| OSTARGI OPTIKA | Bera |
| GOIKO ARGAZKIDENDA | Bera |
| AYLA ARGAZKIDENDA | Bera |
| RADIO BIDASOA | Bera |
| ZALAIN MOTOR | Bera |
| NEREA OINETAKOAK | Doneztebe |
| SAMPI ARAGON TAILERRAK | Doneztebe |
| MENDAUR MOTOR | Doneztebe |
| SAIOA ARROPA DENDA | Doneztebe |
| TXIRRISTA ARROPA DENDA | Doneztebe |
| IPINGI ARROPA DENDA | Elizondo |
| COCO'S ARROPA DENDA | Elizondo |
| PEDRO GARMENDIA TAILERRAK | Elizondo |
| MARIXUS ELEKTROGAILUAK | Lesaka |
| LEGARRA LIBURUDENDA-PAPERTEGIA | Lesaka |
| DEÑE LENTZERIA | Lesaka |

...eta bertze 14 gehiago, dagoenekoz

**ttipi-ttapa** *fundazioa*

*Bazkide izan eta TTIPI TXARTELA eskuratu nahi baduzu, bete txartel hau eta bidali gure helbidera*

**ttipi-ttapa** Herriko Etxeko Plaza, 1 31780 BERA ✆ **63 11 88**

**Izen-deiturak** ..............................................

**Helbidea** .............................. **Telefonoa** ............

*Informazio gehiago izan nahi dut*

**ttipi-ttapa**
HAMABOSTEKARIA

**Lege Gordailua:** NA-1324/85
**Frankeo Itundua:** 34/79
**Tirada: 6.300 ale**

**Argitaratzailea:** ttipi-ttapa
Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA
Tfnoa: 63 11 88
Faxa: 63 12 91
**Internet:**
http://www.encomix.es/ttipi-ttapa
**e-mail:**
ttipi@encomix.es
**e-mail:**
ttipi@mail.sendanet.es

**Zuzendaria:** Joxemanuel Irigoien. **Publizitatea:** Miren Karmele Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor Arozena, Asier Gogorza, Joxemanuel Irigoien. **Administrazioa:** Amaia Goia. **Erredakzio taldea:** Pello Apezetxea, Juainas Paul, Kristina Boan, Bittori Telletxea. **Berriemaileak:** Joseba Azpiroz, Esteban Arozena, Juana Mari Saizar, Ainhoa Mutuberria, Iban Isasi, Txema Aldabe, Patxi Otxandorena, Ixabel Maia, Josune Etxeberste, Pablo Mendiburu, Joseba Igarabide, Alizia Olaizola, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Mikel Gerendiain, Jacqueline, Elizabet Iturria, Garbiñe Maiz, Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Aitor Arozena, Kristina Boan.
**Kolaboratzaileak:** EHNE Nafarroa, Mikel Bezunartea, Joxe Javier Etxeberria...
**Inprimategia:** Graficas Ona.
***ttipi-ttapa**k ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzukizunik.
**Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Areso, Baztan, Urdazubi, Zugarramurdi eta Sarako udalak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkartea...

**Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du**



GAURKOTASUNEKO GAIA

# Presoak Euskal Herrira

## Alderdi politikoek gibelera egitea ezinezkoa dute orain



Paxkual ETXEBERRIA
Preso baten aita. Bera

Duela urte batzuk partido politiko gehienek erabaki zuten presoak Espainia guziko gartzeletan sakabanatzea. Presoen egoera gartzeletan larria da, tratu txar fisiko-sikikokoak, oztopoak ikasketetan... Hau dela eta behartuta daude etengabe gose greba, itxialdi eta inkomunikazio grebak egitera.
Sakabanaketak familian ere ondorioak sortu ditu: kilometroak, gastu ekonomikoak, tratu zorrotzak, karreteran bizia galtzea eta abar.
Presoen eta familien egoera txar honengatik SENIDEAK sortu zen. Presoen eskubideak galdetzeko ateak non ziren ikusi eta ate horiek joka ibili gara. Aldiberean, gizarte osoa sentsibilizatzeko lanean aritu gara gelditu gabe.
Preso eta senideon lanaren fruituak ikusten hasi gara. Itxita zeuden ate aunitz ireki eta milaka pertsona mobilizatu dira. Azaroaren 30ean Bilbon 50.000 pertsonek giza eskubideak betetzeko eskatu zuten. Bultzada haundia da. Ez dut uste legeak dioena segiduan beteko denik, bultzada gehiago ere beharko dira, bainan alderdi politikoen borondatea benetan aldatu da.

## Zilegia delako, euskal presoak Euskal Herrian behar ditugu



Anttonio SAGASTIBELTZA
Elkarri-ko kidea. Leitza

Giza-eskubideak dira gizakiak zaindu beharko lituzkeen balore preziatuenak, zinez defendatu gainera; bestela zer gelditUko litzaiguke!
Euskal presoak betetzen ari diren zigorraren epaiketa egin gabe, zergatik jasan behar dute ziega ilunetan egoteaz gain, etxetik urrun, senideengandik aparte eta lagunengandik urruti egotea. Presoen sakabanaketa erantsitako zigorra dela deritzot.
Herritar orok buruz jokatu behar dugu afera honetan, denok batera indarra eginez, preso guztiak Euskal Herrira ekarri arte. Hau izan baitaiteke gatazka honen konponbidearen hasiera.

## ZUZENKETA

Azkeneko TTIPI-TTAPA inprentatik hartzerakoan, ustegabeko akatsa agertu zaigu. Erreportaiaren testua ez zitzaigun bere osotasunean agertu, eta aldiberean, zati bat bikoizturik zetorren. Akats hori moldatu nahirik, hementxe duzue erreportaian gorderik gelditu zen testu zatia:

### Alderdi politikoen erreakzioak

Bertzalde, HBko parlamentaria den Adolfo Araizek begi txarrez ikusten du CSIren pribatizazioa, *«enpresa multinazional bati saltzeak, atzerriko kapitalaren menpe gelditzea suposatzen baitu eta multinazionalek diruari bertzerik ez diotelako erreparatzen, enpresaren kokalekuan sortu daitezkeen behar ekonomikoak kontutan eduki gabe»*. IUk bere aldetik *«partizipazio zuzena eta hurrengo akzionista pribatuen gaineko kontrol politikoa ezartzea»* eskatu dio Nafarroako Gobernuari.

### Gerora begira zer?

Gaur egun, ez da ahantzi behar Baztan-Bidasoan industrian lan egiten duten 10 langiletik 8k CSIn dihardutela. Datu honek argi erakusten du enpresa honek duen garrantzia eskualdeko bizitza sozialean. Nafarroako Gobernuko lehendakariak lanpostuak errespetatuko direla behin eta berriz errepikatzen duten bitartean, zer gertatuko da gure zonaldeko enpresarik garrantzitsuena multinazional atzerritar baten gidaritzapean gelditzen denean?

**ARTEKARI TALDEA**
ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

**LESAKA:**
• Egunero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.
• Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.
**Non:** MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 74 04

**IRUÑEA:**
• Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 17 55 40
**Non:** Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitorpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta

## IRAKURLEAK MINTZO

### Aresoko Herri Batasunaren iritzia eskolako gatazkaren inguruan

Deus baino lehen, gure udal taldeak Aresoko Guraso Elkartea zoriondu nahi du, gure herriko seme-alaben irakaskuntzaren kalitatea mantendu eta hobetzearen alde eraman duten borroka irmo eta eskuzabalarengatik.

Bi hilabete eta erdiko gatazkaren ondoren Diputazioak bere arrazoiak onartu ditu:

• Eskatzen ziren espazioak beharrezkoak ziren.

• Liburutegia beharrezkoa da.

• 5. eta 6. maila, mantenduko den lorpen handia da. Eta arrazoia emateaz gainera, bere borrokak dirua ekarri du eskolara, dirulaguntza moduan (6.200.000 pezeta bitarte, lanek sortuko duten gastuaren %70. Gainerako %30, bere gogoz kontra bada ere, Udalak jarri beharko du).

Pozik egon gaitezke, lorpen hauek pentsaezinak ziren irailaren 1ean. Borroka irmo eta zentzuzkoari esker, ikasmahaiak luzaroan kalean eta irakasle nahiz umeak egoera hobeago baten zain pilaturik ikusi beharrik ez daukagu.

Instalakuntzen kalitatea mantendu eta hobetzen dela esan dezakegu.

Behar den maila eman ez dutenak Aresoarrak taldekoak dira, bere Alkatea eta Alkateordea buru direlarik. Alkateak, gurasoen bidezko eskakizunen aurrean ez du hitzegin nahi izan, elkarrizketaren ordez Guardia Zibila bidali dute (5 aldiz) beldurra zabalduz; honek herria suminduraz eta sufrimenduz bete du. Eskolaren instalakuntzen erabileran sartu dira, nahiz eta alor honetan ez duten ez konpetentziarik ezta gaitasunik ere eskolako komunitateari zer egin behar duen edo zer ez duen egin behar, edo zer behar duen eta zer ez duen behar esateko.

Pisuarena, eskolak duen espazioaren arazoa moldatzeko konponbiderik hoberena eta merkeena zen. Honi gehitzen badiogu trinketearen libratzea eta bere erreabilitazioa, dirulaguntzak kenduta milioi erdira ez zen iritsiko kostoa. Aresoarrak udal talde honek egoera penagarrian dauzka zenbait pista, kirol eta kultur taldeei dirulaguntzak ukatzen dizkie, eskolarako aspiragailu bat erosteko eztabaida plenora eraman zuen, eta bapatean «sukar kirolzale eta kulturzalea» etorri zaio eta beharturik bi milioi inguru inbertitu ditu espazio famatu horietan. Pozten garela esan beharra daukagu, eta komunitate eskolarrarekiko duen jarreran aldaketa positibo baten hasiera izanen dela espero dugu.

ARESOKO HERRI BATASUNA

**OHARRA:**

*Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren fotokopia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero,* **ttipi-ttapa***k bere esku izanen du horretarako eskubidea.*
*Ez dira argitaratuko beren nortasuna agertzen ez digutenen iritzirik.*

### Gartzelan ikasia

Ikusten eta norberaren larruan sufritzen ikasten omen da. Nik gartzelan ikasitakoa erranen dizuet: gorputza ubelduta eta arima xehatuta sartzen da euskalduna gartzelan. Gero, sufrimenduaren zuloa da ziega, iluna bezain sakona eta penaren tokia. Gartzelak euskal seme-alabak urruntzen, isolatzen, iraintzen, jotzen, gaixoarazten, hiltzen ditu. Milaka Km. eginaraziz familiak zigortzen ditu. Gartzelak gorroto dio euskarari, akaso presoaren aberri bakarra delako barrote arteko atzerri arrotz honetan. Barruko denbora barea, mansoa, itsaskorra da, ez baitako presoak noiz aterako den. 600 gartzela badira.

Gauza onik ere deskubritu dut: elkartasun zintzoa, euskaldunok elkarri emandako animo eta babesa; kaleko jendeak igorritako indarra, lagun maiteen laguntza; harresien arteko maitasun gazi gozoa, gogorra... zuei, denoi, mila esker!

Gose greban gaude berriz. 23. eguna. 12 kilo gutxiago. Gorputza gaizki dago baina gogoa ongi. Euskal Herrira eraman gaitzatela lortu behar dugu, behar hutsa delako eta bakebide ere badelako.

Ziegatik agur bat eta indarra haundia Bortzirietako atzerriratu eta preso guztiei. Abudo arte.

JOXELU ETXEBERRIA LEKUONA.
MONTERROSON PRESO.




LESAKA


Tel.: 450 133
451 541
Faxa: 450 334
DONEZTEBE

APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK
• Melamina taulak
• Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
• Txapaz estalitako taulak
• Entzimerak
• Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
• Pintura eta bernizak
• Bainurako mobleak eta osagarriak
• KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

KOLABORAZIOAK

Jon GORTARI *Oronoztik*

# Herrietako alkateak aukeratzeko batzarreak



Eguberri aitzineko igandean, abenduaren 22an, Baztango hamabost herrietako alkateak, *'juradoak'*, hautatzeko hauteskundeak izanen ditugu. Baztango ordenantzek halaxe agintzen dute.

Ezin utzi aipatu gabe Baztan, kondaira zahar eta haundiko Ballea dugula. Baztan izenak *Bat-naiz* erran nahi omen du. Batzuek diote, kalagurritarren artean edo lurralde haietan behintzat, *Bat-an* deitzen zitzaiola aintzineko denboretan. Bertze batzuek *Bat-naiz* dela segurtatzen dute. Eta ez litzateke guztiz okerreko gauza izanen, eskualde honetako herri guztiek halaxeko batasun berezi bat aspaldidanik ezaguna dutelako. Nork ez du entzun Baztango Balleko zenbait ixtorio edo xehetasunen berri? 1969. urtera arte 14 herrik osatzen zuten Baztan. Urte hortan Amaiur gehitu zitzaien. Baztango eremuak 364 $km^2$ ditu. Baztango Ballea deitzen da, bainan, aunitzetan Baztan Unibertsitatea deitu izan zaio; baita Errepublika izendatu ere, noizbait. Horra, nolako Balle ospetsua dugun Baztan, izan ere, aski berezia baita Baztango Balleak bere burua gobernatzeko duen modua: 15 herriek udal berbera dute, Herriko Etxe berean, Elizondon alegia, berau baita Balle osoko hiriburua bezala. Bainan, baztango herri bakoitzak badu bere alkatea. Ez goitiko agintariek, ezta Baztango alkateak berak ere, ez du Herrietako Juradoa izendatzeko eskubiderik. Soilki, herri bakoitzak duen eskubide huts-hutsa da hori. Nola egiten ote den Juradoaren izendatzea? Bi urtetik behin Eguberri egunean. (direla 10-12 urtez geroztik Eguberri aitzineko igandera aldatu zen, Eguberri Eguna familiko eguna egiten zaigulako, eta ez hauteskunde eguna). Meza Nagusiaren ondotik biltzen dira Batzartegian eta, 18 urtez goitikoek parte hartzen dute izendatzean.

**Ez goitiko agintariek, ezta Baztango Alkateak berak ere, ez du Herrietako Juradoa izendatzeko eskubiderik. Soilki, herri bakoitzak duen eskubide huts-hutsa da hori.**

Hona beraz, osaturik gelditzen da Baztango Udala: Balle osoko alkatea buru delarik, hamahiru zinegotzi edo kontzejal, hamabost herrietako alkateak, bertze lau gizon *Juntero* izenarekin, Junta Jeneralean boto-eskubidearekin eta bertze zortzi gizon Alkateek izendatuak, mendietako batzordekide edo komisiokoak. Hauek ez dute botorik. Errege egunean hartuko dute kargua herriaren aitzinean, hautatuak izan direnak.

Bixente *Leitzatik*

# Urteko balantzea egiteko ordua

Oharkabean iritsi zaigu urte amaiera eta balantzearen ordua. Egitekotan, etxetik hasi behar bada. Eztabaida luzeen ondoren, zenbait erabaki hartu dugu. Noski ez dela izan guztion gustokoa. Beti gertatzen zaigu horrelako zerbait. Alabak, dendari guztiak kapitalista hutsak direla eta utzitako zorrak ederki kobratuak dituztela honez gero. Semeak, bera ez dela kalera irteteko gauza sentitzen eta are gutxiago Eroski aurretik igarotzeko han gordetzen den kartilaz oroitu gabe. Azkenik, etxe guztietan bezala, etxekoandrearen esanetara makurtu behar: zorrik bai edo zorrik ez, burua tente eduki behar dela, etxeko nagusiak ere behar lituzkeenak balitu ez genukeela mixeri hauetara iritsi beharrik izango eta, ezker-eskuin burua behin eta berriz astindu ondoren, Bixentek, bi zulotako poltsan zituen eta ez zituen guztiak, mahai gainean utzi behar izan ditu txistik eransteko aukerarik gabe. Eta ondoren Herriko balantzea. Hemen ere zorren burrunba entzun behar izan dugu, agian gehixko... Igerilekuetan 27 miloiko obrak burutu behar direla datorren udan silikonaren mirariak baieztatu nahi baditugu, baina dirulaguntza ukatu digutela goitik. Polikiroldegi baterako ere diru eske ibili dela Udala, baina oraingoz emaitza 0 pezetakoa izan dela. Futbol zelairik gabe egon daitekela Leitza laister, Sarriok oraingo zelaia hartzen duelako. Honetxek ematen digu pena. Futbol taldez josirik daukagu herria. Aurrera kirol elkartea iaz Preferentera igo zitzaigun eta, hor dabilkigu aurreko postuetan. Kadeteak ere, hainbeste jasan ondoren, hasi zaizkigu partiduak irabazten. Baina, gure beginitakoen, neska taldea dugu. Zorrak zor, Udalak zerbait egiten ahal du larrialdi honetatik ateratzeko.

**Futbol zelairik gabe egon daiteke Leitza laister, Sarriok oraingo zelaia hartzen duelako. Honetxek ematen digu pena. Zorrak zor, Udalak zer edo zer egiten ahal du larrialdi honetatik ateratzeko.**

Baina, urte honetako gertakaririk gogorrena Karrape irratiaren galera izan dugu. Etenaldia omen, helburuak ongi lortzen ari ziren ikusteko. Enpresari batek horretarako ez zukeen itxiko, bere poltsikotik ordaindu beharko baitzukeen atsedenaldia. Egunero ikusten ditugu beste irratiak egiten ari diren aldaketak beren entzuleen kopuruak igotzearren, hemen inork ez du ezer ixten. Entzun ditugu batzuen eta besteen su gurutzatuak ere, ez gara tartean sartuko, norberak jakingo du dagokion erantzukizuna. Nonbait hor, haizerrotak argindarra sortzen ari dira eta haizea behintzat ez dirudi kenduko digutenik oraingoz. Hala bedi.

## PRENTSATIK BILDUTAKOAK


Jean Aniotzbehere, Sarako auzapeza, Euskal Departamenduaren aldeko hautetsien elkartearen lehendakaria.

Herria 96-XII-5

*«Gauza bat argi agertu da: Ipar Euskal Herriko auzapez gehienek nahi dute euskal departamendua. Onespen horrek behar du azkartu, ez dugu uzten ahal horrela segidarik gabe, ez liteke zuzen. Euskal departamenduaren pindarrak eztitzen hasiak dira, hautetsien elkartean berriz sutan eman gogo du gaia, jakina baita Ezpeletako axoa berriz berotzen delarik oraino hobetzen dela»*

**Jean ANIOTZBEHERE**
Sarako Auzapeza
Herri 96-XII-5

*«Orain arteko txapelketaren balantzea ona bada ere, benetan zaila orain datorrena da, semifinaletan sartzeko intentzioa duten bikoteen kontra ariko baikara»*

**Julen SALABERRIA**
Goizuetako Pilotaria
Diario de Noticias 96-XII-10

## 11 GALDERA LABUR


**Micaela MARTINIKORENA**
Aresoko dendari-tabernaria

- **Dendaria edo tabernaria?**
- Tabernaria.
- **Bezeroak, gizonak, emakumeak, gazteak edo haurrak?**
- Denetatik.
- **Zer erakutsi dizu lan honek?**
- Pertsonen arrteko harremanak lantzen.
- **Zure alabei aholkatuko zenieke lan hau?**
- Bai.
- **Jendea ezagutzen al da tabernako konbertsazioetan?**
- Ez.
- **Ez duzu pentsatu jai egitea urteko egun batean ere?**
- Bai, pentsatu bai...
- **Bezero gehienak, dendan edo tabernan?**
- Dendan.
- **Zer moduz Port Aventuran? Errepikatzeko moduan?**
- Bai, bai.
- **Gustatuko litzaizuke etxekoandre soil-soila izatea, bestelako lanik gabe?**
- Ez.
- **Amets bat?**
- Oporrak izatea.
- **Denbora izanez gero, hobby bat?**
- Zerbait ikasi.



**J. RAMOS**
Zolak akutxilatu eta barnizatzen dittut
✆ 631342 **BERA** • ✆ 637172 **LESAKA**

GRUPO ZURICH
ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 — BERA — ✆ 63 07 63

**PIKABEA** *pinturak*
**Molinero** drogerian galdetu
***Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu***
- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 • ☎ 630240 - 631495 • **BERA**

E D A R I A K
MANUEL TABERNA S.L.
Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

INGURUGIROA

# Naturgune, habitat eta erabilera publikoko mendien inbentarioa

## Argitaratu berria du Nafarroako Gobernuak

Nafarroako Gobernuko Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak emandako Foru Agindu baten bidez, Naturgune, habitat edo bizileku eta erabilera publikoko mendien lehen inbentarioa jakinarazi berri du.

Inbentarioak ondoko datuak zehaztuko ditu naturgune edo habitat bakoitzeko: izena, zein udaletan dagoen, azalera, deklarazioaren euskarri juridikoa, mugapena eta Erabili eta Kudeatzeko Planik edo inguruko babes eremurik ba ote duen. Mendi bakoitzeko haren izena, udal dermioa, azalera eta, hala balitz, Erabilera Publikoko Mendien Katalogoan duen zenbakia bildu beharko da.

| Ingurua | Herria | Azalera (Ha.) |
|---|---|---|
| **NATUR ERRESERBAK** | | |
| Labeaga | Bera | 1,3 |
| Itsusiko haitzak | Baztan | 115 |
| Irubelakaskoa | Baztan | 107 |
| Sanjuanxar | Igantzi | 2,8 |
| **AISIRAKO NATUR EREMUAK** | | |
| Leurtzako urtegiak | Urrotz-Beintza | 381,5 |
| **MONUMENTU NATURALAK** | | |
| Leitzalarreko izeiak | Leitza | |
| Bertizko zedroa | Bertizko Jaurerria | |
| **PARKE NATURALAK** | | |
| Bertizko Jaurerria | Bertizarana | 2.040 |
| **HEGAZTIEN BABESGUNE BEREZIAK** | | |
| Aritzakun-Gorramendi | Baztan | 5.909 |
| **BASA FAUNA BABESTEKO EREMUAK** | | |
| Iparla | Baztan | 266 |

**ERABILERA PUBLIKOKO MENDI KATALOGATUAK**

| | | |
|---|---|---|
| Kintoa | Baztan-Erroibar | 4.942 |
| Ekaitza-Astalko | Arantza | 1.129 |
| Ametzoko | Arantza | 908 |
| Makuzulo-Euntzin-Suroaldea-Arranbide | Arano | 1.234 |
| Sakolo-Belaku | Areso | 363 |
| Meru-Elutseder | Areso | 616 |
| Sastra-Karramiztegi | Baztan | 6.150 |
| Argurutz-Bailei | Baztan | 6.180 |
| Iñarbegi-Burga | Baztan | 3.720 |
| Gorramendi-Urritzate | Baztan | 5.950 |
| Alkurruntz-Otsabidea | Baztan | 3.900 |
| Legate | Baztan | 4.200 |
| Hilerri-Unigibel-Erbide-Zeberia- Negusoro Idiso-Amaia-Santa Leokadia | Bertizarana | 951 |
| Oteitzaldea | Bertizarana | 349 |
| Tipulatze | Bertizarana | 32 |
| Mokorro | Bertizarana | 175 |
| Bidekorri-Txaruta-Atondo-Ubidea-Arizmendi | Donamaria | 1.986 |
| Egillun-Arrakoitz-Olaldea-Erroitegi-Otsain-Asura-Loieta-Mendixorrotx | Etxalar | 1.423 |
| Ezkuberea-Urtsua-Gorospil-Altzate-Irazaku-Orizki-Otsobi-Lakain-Orainbeta | Etxalar | 1.563 |
| Zumeldiko erreka-Mizpiralepo-Unanegi-Xiñaurtegi-Gaineko Saroia-Lizarieta-Iarmendi | Etxalar | 1.145 |
| Gorosterazuko malda | Elgorriaga | 211 |
| Ameztia | Elgorriaga | 113 |
| Urrizton-Biztaizuri-Anastol | Eratsun | 654 |
| Asura-Zumarrista-Erañain | Eratsun | 1.811 |
| Itola | Ezkurra | 457 |
| Ezkurmendi | Ezkurra | 1.761 |
| Anizlarrea-Elilleria | Goizueta | 5.155 |
| Asurdi-Armaurri-Txokoa | Ituren | 979 |
| Ameztia | Ituren | 450 |
| Ello-Urradi-Oale | Beintza-Labaien | 1.336 |
| Larrazabal-Ameztia | Beinta-Labaien | 323 |
| Asura | Beintza-Labaien | 890 |
| Guratz-Okabio | Leitza | 407 |
| Aritz-Asketa | Leitza | 437 |
| Erasote | Leitza | 512 |
| Leitzalarrea | Leitza | 3.906 |
| Zalako erreka-Endarako erreka-Otsango | Lesaka | 3.785 |
| Urraba-Zarrola | Lesaka | 827 |
| Frain | Lesaka | 315 |
| Goizamendi-Isastegi | Baztan | 336 |
| Otsondo | Baztan | 378 |
| Barreiatua | Baztan | 790 |
| Ezpeldia-Utsabidor-Mokorro | Oitz | 645 |
| Ameztia | Oitz | 182 |
| Tantadi-Autside-Galtzarraga | Saldias | 583 |
| Urrutiña | Saldias | 182 |
| Axkin | Doneztebe | 143 |
| Oteitzoiana | Doneztebe | 258 |
| Erlin-Izturra-Monaxkera | Urrotz | 805 |
| Ameztia | Urrotz | 106 |
| Elkarrikoa | Urrotz | 156 |
| Zigorriaga-Larun | Bera | 2.139 |
| Santa Barbara-Labeaga | Bera | 856 |
| Unanu | Igantzi | 291 |
| Pagola | Igantzi | 315 |
| Anejo | Igantzi | 166 |
| Frain | Igantzi | 266 |
| Alkasoaldea | Goizueta | 44 |

Dia %
Autozerbitzua deskontua
Hamabostero ofertak
Zatoz eta ikusi
Eztegara, 6 • © 63 14 03 • BERA


LABE-ZAR
© 631076 • BERA

BOTXO ostatua
Tfnoa: 63 00 52
Zalain Auzoa, BERA

DIRDIR
OPARIAK
EZTEGARA 6 • BERA
Pitxiak
Karterak
Giltzariak
Boltsoak

## BERA

# Eguberrietako ospakizunak prest

### Olentzero, Glin-Glan, Erregeak...

KRISTINA **BOAN**

Urtetik urtera errepikatzen diren ekitaldiak badira ere, ilusioz eta gogoz esperatzen ditugu Eguberri bezperatik hasi eta Errege eguneraino doazen aste hauek.

Abenduaren 24an Gure Txokoak antolatuko duen Olentzerorako eta Urtezahar gaueko *Diostesalbea* kantatzeko entsaioak abenduaren 19, 21 eta 23an, arratseko 8etatik aitzinera eginen dira Iamotenean.

Urtezahar egunean berriz, *Glin-Glan* kantatuko dute ikastetxeetako neska-mutikoek, urtea behar bezala hasteko urtatsa eskatuz.

Urtarrilaren 5ean berriz, Guraso elkarteek antolatutako Errege kabalgata eta jaiotza izanen da. Bi ekitaldi hauetan, hiru ikastetxeetako neska-mutikoek parte hartuko dute.

### Jose Luis Sebastian herriko presoaren osasun egoeraz kezkatu da udala

Jose Luis Sebastian, 'Sebas' herriko preso politikoaren osasun egoera aztertzeko Euskal Herrira ekar dezatela eskatu du ahobatez udalak. Senideak erakundeak *"kartzelan hartzen ari den tratoa ez dela bere osasun egoerak behar duena"* salatu du. Alkateak azaldu zuenez, Sebasen emazteak eman zion bere egoeraren berri eta berak hurrengo egunean kartzelako gizarte langilearekin hitz egin zuen eta faxez idatzi bat bidali zion zuzendariari. HBko ordezkariak erran zuenez, *"osasun arazo honekin kartzelara sartu zutenetik dago, baina arazoa gero eta larriagoa bihurtzen ari da"*. Erabeirean, presoen osasun egoeraren jarraipena egiteko mediku talde bat dagoela adierazi zuen eta aipatutako talde horrek ikusteko Jose Luis Sebastian honat ekartzea eskatu du udalak.





### Argiñanok bisita egin zuen Uxane eta Zahar Etxera

Duela aste batzuk Karlos Argiñano sukaldari ezagunak eta telebistan hainbertze aldiz ikusiak, bisita egin zuen Berako Uxane Zentrura eta San Jose Zahar Etxera. Bisita horren oroigarria izateko, argazkiak ateri zituzten bi egoitzetan, eta azkenik, opariak ere elkar-trukatu zituzten. Argiñanok sukaldaritza liburuak dedikatu zizkien bi egoitzetakoei, eta beretzat, Uxanekoek eurek egindako kuadro bat eman zioten eta San Jose erresidentziakoek Berako txistorrak. Inaxio Errandonea pilotariak ere lagun egin zion Zarauzko sukaldariari herriko bazterrak erakusten.

Argazkiak: GOIKO

## flash

**Bidasoa eskubaloi taldean**
Irungo Elgorriaga-Bidasoa eskubaloi taldean jokatzen hasiak dira Berako Julen Zurbano eta Aitor Ezeiza. Proba batzuk egin ondotik, kadete mailako taldean entrenatzen hasiak dira.

**Pilota txapelketa**
Abenduaren 22an bukatuko da herriko pilota txapelketan izena emateko epea. Izen ematea 630029 edo 630591 telefonoetan egin behar da.

**Herri Mendiak**
Gestionatzeko Plan Teknikoa idazteko lanak Basartea S.L. enpresak eginen ditu 4.384.800 pezetako kopuruan.

**Mendi Federatu karneta**
berritzeko deialdia luzatu du Agerra mendi taldeak. Lau motako karnetak daude: Espainiakoa, Espainia+frantziar Pirinioa, Europakoa eta mundu guztikoa. Informazio gehiagorako deitu 630362ra (Xabier) gaueko 10etatik aitzinera.


TOP CLASS ENGLISH

INGELES AKADEMIA
Alan Leiper
ZUZENDARIA
ITZULPENAK: Ingelesa, Frantsesa
ITZULTZAILEAK: Hitzaldiak, enpresak, etabar.
ESKOLA LAGUNTZA
4 URTETIK AITZINERA • GAZTEAK • HELDUAK
Ikusentzuteko metodoak • Hango irakasleak • Udako ikastaroak
LESAKA • Bittiria Plaza 6, Behea • ✆ 989.702554
BERA • J. Caro Baroja 10, Behea (Eskolaren aitzinean)
ETXALAR • (Eskola zaharretan)

Javier Manterola
TEKNIKO INSTALATZAILEA
iturgintza • gasa • kalefakzioa
Tfnoa: 630 031 • BERA

GOZOTEGI - JAIONE

Altzate, 19 • 630786 • BERA

OKANE
HARATEGIA • URDAITEGIA
Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA

## ☞ LESAKA

# Ez da presoen egoeraren berri jakiteko udal batzorderik izanen

Alkateak «gestio pertsonalak» eginak dituela erran zuen

AITOR AROZENA

Herriko presoen egoeraren jarraipena egiteko, udalean dauden hiru taldeetako kidez osatutako batzorde bat eratzea ez zuen onartu udalbatzak, PNVko zazpi zinegotzien kontrako botoa eta EA eta HBko lauen baiezkoa jaso baitzuen, azken talde honek aurkeztutako idazkiak. Alkateak adierazi zuenez, gai hau Artzai Onean gose greban zeuden funtzionari batzuen eskaerakin hasi zen eta geroztik bere gestio pertsonalak egin ditu, *«udalak hartu zuen akordioaren berri emanez kartak bidaliz eta kontesta jasoz»*. Eraberean, alkateak zioenez, gai honen inguruan *«presoen guraso eta senideen erranekin mugitzen naiz, ez bertze alderdi batek eskatzen duen gauzekin»*. HBk, bere aldetik, gai honekin modu partikularrean egin daitezkeen gestio guztiak ongi etorriak direla erran ondotik, *«momentu honetan udal iniziatiba bati buruz ari gara»* aipatu zuten eta alkateari *«Udala ez dela bera bakarrik, maizegi ematen duen bezala»* gogorarazi zioten.



**Eguberriak**
Olentzero eta jaiotza lehiaketa, urtezaharreko *Diostesalbea*, Errega Kabalgata… urtero bezala egun seinalatuak heldu dira Arg.: Telletxea

### ▼ flash

**Ski kanpaina**
XIII. iparraldeko ski kanpainari zuzendua, iazko dirulaguntza bera ematea erabaki du udalak, hau da, 2.500 pezeta bertan parte hartzen duen haur bakoitzeko.

**Udal ordezkariak ikastetxeetan**
Esteban Irazoki (PNV) Irain eskolan eta Jose Ramon Maritxalar (EA) Tantirumairu ikastolan izanen dira udal ordezkariak Eskola Kontseiluetan. HBkoak abstenitu ziren.

**3.074.002 pta.**
gosta da herrian paratutako seinale horizontal eta bertikalak jartzea.

## Samina eta atsekabea Jon Apezetxea eta Marcelino Sanjurjoren heriotzen ondorioz

Ezin erran egun zoriontsuak bizi izan ditugunik azken asteotan.

San Francisco egunean hilik agertu zen Jon Apezetxea Tapia, 22 urteko gaztea. Aski mutil ezaguna eta maitatua zen Jon. DYAn laguntzaile izateaz gain, Beti Gazte futbol taldeko jokalaria zen. Hileta-elizkizunean ttikia gelditu zen San Martin eliza, hainbat lagun bildu baitziren azken agurra ematera. Familiaren nahia betez, futbol taldearen jantziaz lurperatu zuten eta Beti Gazteren ikurraz estalia ageri zen hilkutxa. Abenduaren 8an jokatutako partiduan, haundien bi taldeetako jokalariak elkarrekin ateri ziren futbol-zelaira, 10 zenbakidun kamiseta bi kapitainen artean eramanez. Bortz minutuko ixilunea eta lore eskaintza egin ondotik, Beti Gaztekoek 10 zenbakirik gabe jokatu zuten partidua.

Abenduaren 8an, berriz, Marcelino Sanjurjo lesakar ezaguna hil zen.

Gazte denboran bere akordeoiarekin herriz herri ibilitakoa eta Tele-Bote ostatuko nagusia zen Marcelino. Prentsa eta irrati munduan ere hainbat urtetan aritutakoa zen.



Jon Apezetxea



Marcelino Sanjurjo




Albistur, 39-K
☎ 627542
LESAKA
• bitxikeriak •
• opariak •
• enmarkazioak •


Aranguren
Aroztegi mekanikoa
Tel.-Fax: (948) 63 72 58
Tel.mugikorra: 908 -77 51 85
Otsango industrialdea
31770 LESAKA
• Leihoak
• Aurre-markoak
• Eskailerak
• Fabrikanteak gara

KOXKILA
OSTATUA

Zarandia, 4 - LESAKA

## ETXALAR

# Herrigunea edertzeko obrak laister hasiko dira

Lasaga-Telletxea enpresak eginen ditu hargin lanak

PELLO APEZETXEA

Sei enpresek presentatu zituzten euren eskaintzak Herrigunea Edertzeko Proiektu hau egiteko. Azkenean, eskaintza guztiak ikusi ondotik, Etxalarko Lasaga-Telletxea enpresak egin duena izan da merkeena, eta udalbatzak, ahobatez, obra beraiei ematea erabaki zuen.

1996 udal-aurrekontuetatik hamar milioi pezeta zeuden proiektu honetarako gorderik, bainan azkenean, obrak 8,5 milioi pezetetan adjudikatu direnez, hasiera batean pentsatzen zena baino milioi terdi merkeago ateriko da.

### Zolak eta paretak

Lehenbiziko fase honetan karriketako espaloiak eta paretak moldatuko dira nagusiki. Bakar batzuk aipatzekotan, Herriko Etxe zaharraren parean dagoen josteta-lekua, Frontoiaren gibelaldea, Martinea ondoan erreka bazterreko pareta... Bigarren fase batean presa ondoa, Arroseako iturria edo Kanposantu aldeko etxeetako karrika sartuko ziren.

### Finantziazioa

Obraren erdia herriak berak ordainduko du, eta bertze erdia *Leader II* programatik estaliko da, Cederna-Garalur agentziaren bitartez.




### Larraburuakoen omenaldia 80 urtekoei

Azken urteotako martxari segituz, 80 urteak betē dituztenak omendu zituzten Larraburua elkartekoek abenduaren 3an, San Frantzisko egunean. Bazkarira lautan hogei lagun inguru bildu ziren. Argazkia: PELLO

## Bortziriak '5b eremutik' kanpo dagoenez, aurten ez da oihanberritzeko dirulaguntzarik

Nafarroako Mendialde gehientsuena *'5b eremua'* izeneko sailkapenean dago sartua. Bortziriak, ordea, *'2 eremua'* izeneko sailkapenean dago. Bien arteko diferentzia Europatik ematen diren dirulaguntzetan du eragina batez ere. *5b eremu*ko herrietan lehentasuna dute nekazaritza eta mendietarako dirulaguntzek eta *2 eremu*ko herrietan industria inbertsioek.

Dena dela, Etxalarko kasuan, negu honetan egin nahi ziren oihanberritzeak heldu den neguan eginen dira. Aurten ez omen dago dirurik.

Horrela bada, Unani mendian 7,5 milioi Pta. inbertituko dira, eta Zabaleta mendian hiru urtetan egin beharreko inbertsioa denez, aurtengo partea heldu den urtean eginen da.

ORBELA
gimnasioa
• Squash eta sauna
• Hidromasaje bainua
• Muskulazio-aretoa
• Kirol masajea
Antoiu 21 • ✆ 637950 • LESAKA



INAXIO JanariDenDa
Igandetan 9etatik 13etara irekia
ASTERO eskeintza bereziak
Plaza Zaharra, Tfnoa: 637059 - LESAKA

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
✆ 627573 • LESAKA

EROSLE
LESAKA
Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena
Frexkuena zugandik hurbilago
Bittiria, 67 - ✆ 637264


✆ 635290
ETXALAR
HERRIKO OSTATUA
Jatetxea
Urte Zaharreko afarirako aukera zabala

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 62 75 14
Beheko Plaza 8, LESAKA

Lurrindenda
Marian Mendiberri
Estetika
Beheko Plaza 8 ✆ 637791 • LESAKA

## IGANTZI

# Hasi dira herriko auzolanetan lehendabiziko objetoreak

### 90 lagun bildu ziren joan den ortziralean Zahar-Etxean bazkaltzera

OSKAR TXOPERENA

Soldaduska kendu behar dutela aditzen ari garen honetan, hasiak dira herriko lehendabiziko hiru objetoreak Ordezko Zerbitzua herrian betetzen. Eskola Zaharreko teilatua moldatzen ari direnei laguntzen diete, momentuz, eta hamabortz omen dira dagoeneko Ordezko Zerbitzua auzolanetan betetzeko eskatu dutenak.

#### Mus eta partxis lehiaketa

Joan den ortziralean, bazkariaren ondotik, banatu zituzten mus eta partxis txapelketako sariak Zahar Etxean. Musean Anixeto Etxeberria eta Emilio Mendigutxiak irabazi zieten finala Eustakio Iguzkiagirre eta Esteban Goiari. Partxisean Nieves Guerra eta Carmen Etxeberria izan ziren garaile Ana Mª Zelaieta eta Eustakio Iguzkiagirre senar-emazteen aurka.



**Abesbatzen emanaldia**

Bortzirietako Gazte Abesbatzak eta Igantzikoak parte hartu baldin bazuten ere, beratarrak izan ziren orain hamabortz egun eman zen kontzertuko protagonistak Argazkia: OSKAR

#### Eskola Kontseilua

Joan den astean egin ziren eskolako kontseilua osatzeko hauteskundeak. Orain arte zeuden partaide berak segituko dute, bai Udaletxearen aldetik, baita guraso eta irakasleen aldetik ere.

#### Olentzero Eguna

Ari dira bertzalde, olentzero eguna prestatzen. Etzen orain arte eskolan deus haundirik egiten egun horretarako, baina aurten, Olentzeroak bertan egiten ari dira eta eguerdiko tartean, kantak ikasten ere.

#### Mendi plantazioak

Abenduaren 23an, goizez, egonen dira Foresna-Zurgaiakoak mendi plantazioak egin nahi dituztenen subentzioen paperak betetzen.

#### Idazkaria

Herriko Etxeko idazkaria asteazkenetan ere Herriko Etxeko bulegoan egonen da, 11,30etatik aitzinera.



F. MARITORENA
*Mendi eta lorategi garbiketak*
Tfnoa.: (948) 63 11 99 - **BERA**


**JOSE AGERRE**
**PINTURA LANAK**
- Fatxadak garbitu eta pintatu
- Kanpo eta barneko pinturak
- Papera lanak
- Barnizatzeak
- Gotelé
- Moketa eta zintasol

© 908. 97 93 06 • 637957 • **IGANTZIKO BENTAK**



**ROMANO dekorazioak**
Pintura eta papereztatze lan guztiak egiten ditugu
- Zolak jartzen ditugu:
  - Kortxoa • Moketak
  - Parketa • Sintasola
- Gure kolokazio tailerra daukagu
- Komertzioen errotulazioa

Aurrekontuak konpromezurik gabe

Legia 1 • Tel. 631137-630941 • **BERA**




EUSKARA LANDUZ!!

**24. Zenbakia**

1996ko abendua

**Araitz-Betelu, Bortziriak, Basaburua, Goizueta- Arano, Imotz,Larraun, Leitzaldea eta Malerrekako Euskaltegiak**

# Demonio inuxentea!!



**Seguraski noizbait inuxentadaren bat edo bertze egin izanen dizuete, ba... inuxenteen eguna hurbil dagoenez guk hemen, bi bildu ditugu.**

**1*** Lehenago, herrian oraindik argirik ez zenean gauak hagitz beltzak izaten hituen eta ez huen deus ikusten.

Gazte bat gauez, inozentada bat egitera joan huen etxe batera. Atea jo eta ez huen goitik deus ikusten, gainera eskaileretara ateratzen hituen etxe hartakoak. Eskaileretara atera eta zein ote zen galdetu zutenean, gazte honek herriko bertze etxe bateko atso zaharraren boza paratu zian, gezurrezko boza. Bertzeek, goian zeudenek, uste ziteken atso hura zela, boza igoal-igoala paratzen baitzian. Eta esan zieken Etxeberriko Purdentxi zela eta ea bidaliko zituzten hurrengo egunean etxeko bi mutilak Etxeberrira peoi, pareta bat egiteko behar zituzten eta. Baietz erantzun zioteken. Hurrengo goizean etxe hartako bi mutilak Etxeberrira joan omen hituen goizeko seietan jeikita eta orduan bai komediak. Etxe hartan ez zutela abisorik pasatu eta seguraski gezurren bat izanen zela, hango Purdentxi ez zela inora mugitu eta hura inuxente eguna zela.





## Demonio inuxentea!!

**2*** Bi anaia bromatsuren txarkeria da hau . Baserri batean bikote zahar bat bakarrik bizi zen eta behiak larrean zituzten. Bi anaiak mendira joan ziren, bi behiri joareak kendu eta gauez baserriko arbi-alorraren jotzen hasi ziren. Zaharrak lasterka jeiki ziren elkarri "mugi zaitez, behiak etorri eta alorrean sartu zaizkigu" esanez. Esku-argiarekin kanpora atera ziren eta alorrean goiko puntan joarea aditu zen. Goiti zihozela behean aditu zuten eta berriz beheiti. Beheiti heldu zirela berriz goian aditu zuten. Izan ere, anaia batek goian jotzen baitzuen eta beste anaiak behean. Eta zahar gizajoak goiti eta beheiti ibili zituzten. Hurrengo egunean behiak larrean harrapatu omen zituzten beren joareak lepoan.




SARIRAKO ARIKETA

**Bi inuxentada hauek irakurri ondoren agian zuei bertzeren bat gogoratuko zaizue. Oraingo honetan, zuek bidalitako kontuekin gure bilduma osatu nahiko genuke. Baten bat baldin badakizue idatzi eta bestela norbaiti galdetu edo zuk zeuk asmatu.**

______________________________________________

______________________________________________

______________________________________________

______________________________________________

______________________________________________

# Egunkaria miatzen




**EUSKALDUNON EGUNKARIA edo bertze kazetaren bat euskaraz leituz gero, maiz agertzen dira konprenitzeko zailak diren hitz "potolo" batzuk. Hementxe dituzue ba, EGUNKARIAtik ateratako lau zatitxo. Hauen azpian dauden hitz "gizenak" eta erranahiak lotzen badituzu, hobeki ulertuko dituzu.**

■ Haur jaio berriek nortasun agiria izango dute 1997. urtetik aurrera

■ Nekazaritza Sailak 12 beka emango ditu ikerketa eta garapena bultzatzeko

■ Antisorgailu berria merkaturatuko da gaur Erresuma Batuan

Lehergailu bat indargabetu dute Andoaingo enpresa batean

| | | |
|---|---|---|
| **Nortasun agiria** | **1 *** | **A * Bilatze lana** |
| **Agiria** | **2 *** | **B * Baserritarren departamendua** |
| **Lehergailu** | **3 *** | **C * Indarra kendu** |
| **Indargabetu** | **4 *** | **D * Dokumentu - idazki** |
| **Antisorgailu** | **5 *** | **E * Karneta** |
| **Erresuma Batua** | **6 *** | **F * Bonba** |
| **Nekazaritza saila** | **7 *** | **G * Desarroiloa** |
| **Ikerketa** | **8 *** | **H * Ingalaterra, Eskozia, Gales,...** |
| **Garapena** | **9 *** | **I * Emakumea haurdun ez gelditzeko** |




# Hezi zure mingaina!!

**Azkenaldi honetan berboak nahasten ari zaizkigu. Gure hizkuntza kamusten edo aldatzen ari ote zaigu?**

**Ikusi bestela esaldi hauek, batzuk gaizki daude eta besteak ongi**

| **GAIZKI** | **ONGI** |
|---|---|
| **1.—Doneztebeko ferietan ikusi nizun** | **1.— Doneztebeko ferietan ikusi zintudan.** |
| **2.— Haiek niri ezagutzen zidaten.** | **2.— Haiek ni ezagutzen ninduten.** |
| **3.—Lesakara zure kotxean ekarri zenidan.** | **3.— Lesakara zure kotxean ekarri ninduzun.** |
| **4.— Beno, utziko dizut hemen e!** | **4.— Beno, utziko zaitut hemen e!** |

## ORAIN ZUK



**Borra ezazu gaizki dagoen berboa edo aditza:**

**1.—** Atzo Igantzitik Arantzara eraman **~~nizun~~ / zintudan**.

**2.—** Hementxe utzi **ninduten / zidaten** bakar-bakarrik.

**3.—** Ikusi al **zenidan / ninduzun** joan den asteburuan?

**4.—** Bai, nik aspalditik ezagutzen **zaitut / dizut**.

**5.—** Nik altxatu **nizun / zintudan** paretaren gainera.

**6.—** Bide ertzean kaka egiten harrapatu **zidaten / ninduten.**

**7.—** Ederki engainatu **zenidan / ninduzun.**

**8.—** Izugarri maite **dizut / zaitut.**

# Aho loreak



**Hemen dituzun 10 esaera zaharrak bukaerarik gabe daude.**
**Bilatu bigarren puska beheko zerrendari begiratuz eta esaerak osatuko dituzu :**

**1.— Gero dioenak... __________bego dio__________________________________**

**2.— Bi etxetako zakurra...______________________________________________**

**3.— Kanpoan eulia...__________________________________________________**

**4.— Lan lasterra...____________________________________________________**

**5.— Txakur goseak...__________________________________________________**

**6.— Haltzaren zainetik...______________________________________________**

**7.— Abenduko eguna...________________________________________________**

**8.— Entzun duena sutondoan...__________________________________________**

**9.— Munduan nahi duenak luzaroan bizi...__________________________________**

**10.— San Andres lohizu...______________________________________________**

**A.— ... Santa Katina mukizu.**

**B.— ... argitu orduko iluna.**

**C.— ...hezurra amets**

**D.— ... bego dio.**

**E.— ... goseak hil.**

**F.— ... haurrak esaten kanpoan.**

**G.— ... etxean liztorra.**

**H.— ... lan alferra.**

**I.— ... oiloekin ohera eta txoriekin jeiki.**

**J.— ... haltza.**



**soluzioak**

**EGUNKARIA MIATZEN**

1.— E; 4.— C; 7.— B
2.— D; 5.— I; 8.— A
3.— F; 6.— H; 9.— G

**HEZI ZURE MINGAINA**

1.— Zintudan 5.— Zintudan
2.— Ninduten 6.— Ninduten
3.— Ninduzun 7.— Ninduzun
4.— Zaitut 8.— Zaitut

**AHO LOREAK**

1.— D; 3.— G; 5.— C; 7.— B; 9.— I;
2.— E; 4.— H; 6.— J; 8.— F; 10.— A;

**Joan den aleko sarirako ariketa**

1.— G; 3.— B; 5.— J; 7.— D; 9.—C;
2.— K; 4.— I; 6.— A; 8.— F; 10.— H;
11.— E;



## SARIRAKO ARIKETA

**Demonio Inuxentea!!**

**OHARRA:** Dakizuenez ariketa baten erantzunak besterik ez dituzue bidali behar (ale honetan 2. orrialdean duzue). Gainerako ariketen soluzioak beti azken aurreko orrialdean jarriko ditugu.

Euskal liburu eta disken irabazlea **Leitzako Garbiñe Aleman Barriola** izan da. **ZORIONAK!!**

**Oraingo SARIA:**
Bi forro polar (neguko txamarra)

## ALE HONETAKO SARIA ERAMAN NAHI BADUZU:

1.— Sarirako ariketa egin.
2.— Sarirako erantzunak jartzen duen lekura pasatu.
3.— Zure datuak atzean idatzi eta betiko lekuetara bidali:
* Leitzako Euskaltegia. Leitzako udaletxea (Leitzaldekoek)
* Bortzirietako Euskaltegia. Arretxea 22, Lesaka (Bortzirietakoek)
* Malerrekako Euskaltegia. Doneztebe (Malerrekakoek)
* Goizuetako Euskaltegia. Udaletxea. (Goizueta eta Aranokoek)
* Udaletxeko Bulegoa.Balleko etxea. Elizondo (Baztangoek)
* Larraungo udaletxean, Euskara zerbitzuan ( Larraungoek)
* Araitzko udaletxean , MAIOPEn ( Araitz-Betelukoek )
4.— Guk zuzenduko dugu eta hurrengo ETXETIK PLAZARAn erantzuna agertuko da.
5.— Saria, erantzunak bidali dituztenen artean banatuko da.
6.— Zozketan,**Hilbeltzaren 16a** baino lehen bidaltzen dutenek parte hartuko dute.

**Sariaren zozketarako datuak**

Izena ______________ Abizenak___________________________
Adina_________
Helbidea:______________________________ Herria:__________
Telefonoa:_____________

Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza jaso du.

Aldizkari honek Europako Komunitatearen Batzordearen dirulaguntza jaso du.

Lurra
Landa-lurraldeari buruzko aldizkaria • **8.** zenbakia
196. **ttipi-ttapa**rekin banatua

OSASUNGINTZA ETA EUSKARA

# Euskarak Osasun Etxeetan tokirik gabe segitzen du




**2-3-4. OSASUNGINTZA ETA EUSKARA:** Euskara Zerbitzuek luzatu dizkiguten datuak probextuz, euskarak osasungintzan pairatzen duen egoera larriaren berri eman nahi dizuegu honako ale honetan. Duela 4 urteko datuekin konparatuz, arras gutti hobetu dela ohar gaitezke.

**5. TELELANGINTZA IKASTAROAK:** REMOTEk antolatzen dituen ikastaroen berri.

**6-7. NEKAZARITZA-ABELTZANTZA:** Esnearen kuota sistema eta gasna produkzioa. Laburrak

**8. EUSKARA:** Iparraldeko euskaldunei buruzko datuak eta UEMAren azken asanbleari buruzko eritzia. Mikel Ilarregi.

**9.ETXETIK PLAZARA:** Etxetik Plazara egiten dutenekin egondu gara, beraien proiektuaren inguruan galdezka.

**8. ELKARRIZKETA:** Beran ospatu zen Lurraren Egunean Gasna Lehiaketan lehenbiziko saridunak: Pedro Telletxea.

OSASUNGINTZA ETA EUSKARA

# Osasungintzako 3 langiletik 1 bakarrik dago euskaraz alfabetatua

**Eskualdean osasungintzan lanean ari diren 86 langileetatik 39 bertzerik ez dira gai euskaraz solasteko. Kasu konkretuetara jotzen badugu aipatzekoa da pediatren kasua, 5etik batek bakarrik erakusten baitu euskara ikasteko interesa, bertze lauak erdaldun hutsak dira. Izan ere, osasungintzako langileei buruzko datuek ez dute hobera egin azken urte hauetan, administrazioek duten borondate faltarengatik seguraski.**

### Aspaldiko arazoa

Eskualdeko hainbat udalek 1992. urtean bi eskaera zehatz egin zizkioten Nafarroako Gobernuari: Batetik, bere departamentuetatik sortzen ziren lanpostu guzietarako euskara solastua eta idatzia beharrezko baldintza bezala onartzea eta bertzetik, euskara menperatzea beharrezkoa den lanpostuen zerrenda ofiziala finkatzea nahi zuten udal hoiek.

Hala ere, udalen eskaerei muzin eginez, 1993an mediku-erizain erdaldunak bidali zituzten eremu euskalduneko herri batzuetara. Oraingoan, prentsa artikuluak, sinadura bilketa, prentsaurrekoa eta mozio desberdinek osatzen zuten kanpaina baten bidez erantzun zuten udalek. Alferrik.

### Legeak zer dio?

Urte horretako azaroan Osasunbidean sartzeko eta lanpostuak betetzeko baldintzak ezarriz dekretua argitaratu zen. Horren arabera, trasladoa eskatzeko, eremu euskaldunean bortz urtez aritzea eskatzen zaie langile euskaldunei, eta lan deialdietan euskara menperatzeari, %5eko balioa eman zitzaion, administrazio publikoko gainontzeko lanpostuetarako %10ekoa den bitartean.

1994an, foru dekretu berri bat indarrean sartu zen euskara beharrezkoa den lanpostuen kopuruak bildu zituena, baina zerrenda ofiziala eta dekretu hori betearazteko epea zehaztu gabe utziaz. Bertzalde, lanpostu betegabeetan langile euskaldunak enplegatzeko konpromezua ere hartu zuen gobernuak, hala nola, eremu euskalduneko langileen euskalduntzea sustatzekoa.

### Legea alde, administrazioa kontra

Zernahi dela ere, egoerak aski makurra izaten segitzen du gaur egun, eremu euskalduneko osasungintza zerbitzuetan euskarak duen presentzia eskasa begiratzea aski delarik horretaz ohartzeko.

Hamar urte pasa dira Nafarroan Euskararen Legea onartu zenetik eta gaur oraindik ez dira betetzen hark jasotako oinarrizko eskubideak, errate baterako 10. artikulua: *«Hiritar guziek, Administrazio Publikoekin duten harremanetan, euskara nahiz gaztelera erabiltzeko eta hautatutako hizkuntza ofizialean harrera izateko eskubidea dute.(...)»*



Eskualdeko Osasun Etxeetan lanean ari diren 86 langileetatik 39 baino ez dira gaixoekin euskaraz egiteko gai.

> *«Hamar urte pasa dira Nafarroan Euskararen Legea onartu zenetik eta gaur oraindik ez dira betetzen hark jasotako oinarrizko eskubideak.»*

Afera honetan legeak erraten duena eta errealitateak isladatzen duenaren artean alde haundi samarra dago. Bortzirietako Euskara Mankomunidadeak dioenez, ez dago Osasunbideko langileak euskalduntzeko inolako planifikaziorik, eta langileak euskaldundu-alfabetatzeko dauden baimenak ere urriak dira.

### Datu kezkagarriak

Gaurko egunean euskarak arlo honetan bizi duen egoera larria ongi adierazten dute on-

| HERRIA | LANPOSTUA | LAN EGOERA | IZENA | ADINA | EUSKARA MAILA | IKASTAROAK |
|---|---|---|---|---|---|---|
| BAZTAN | Administraria | F | Jone Albistur | 43 | | - |
| BAZTAN | Administraria | F | Margarita Telletxea | - | | - |
| BAZTAN | Ord. Administraria | F | Goretti Telletxea | 22 | | - |
| ORONOZ | Erizaina | BB | MªCruz Goñi | 56 | | - |
| BAZTAN | Pediatra | BB | Sagrario Beuntza | 35 | | - |
| BAZTAN | Erizaina | BB | Ana Cariñena | 37 | | - |
| LEKAROZ-GARTZAIN-IRURITA | Erizaina | BB | MªJosefa Irigoien | - | | - |
| ARIZKUN | Erizaina | BB | Maribel Dufurrena | - | | - |
| URDAZUBI-ZUGARRAMURDI | Erizaina | BB | Bernardette Mihura | - | | - |
| BAZTAN | Ord. Erizaina | BB | Asun San Julian | 25 | | - |
| BAZTAN | Ord. Erizaina | F | MªEugenia Blasko | - | | - |
| BAZTAN | Ord. Erizaina | F | Angelines Munarriz | 33 | | - |
| BAZTAN | Erizaina | BB | MªMilagrosa Pérez | 36 | | - |
| URDAZUBI-ZUGARRAMURDI | Medikua | BB | Benedicto Agirre | - | | - |
| ELIZONDO-AMAIUR | Medikua | F | J.A. Iruretagoiena | 39 | | - |
| ELIZONDO | Medikua | F | Mirentxu Ibañez | 38 | | - |
| ARIZKUN | Medikua | BB | Miguel Ihabar | - | | - |
| LEKAROTZ-GARTZAIN-IRURITA | Medikua | F | Carmen Elizaintzin | 31 | | - |
| ORONOZ | Medikua | BB | Jose A. Rubio | - | | - |
| BAZTAN | Pediatra | F | Javier Rodrígez | 36 | | - |
| BAZTAN | Ord. Medikua | F | Iñaki Markos | 31 | | - |
| BAZTAN | Ord. Medikua | F | Alfredo Etxarri | 31 | | - |
| BAZTAN | Ord. Medikua | F | Mikel Barea | - | | - |
| BAZTAN | Fisioterapeuta | BB | Charo Olleta | 37 | | - |
| BAZTAN | Albaitaria | BB | Iosu Sarobe | 29 | | - |
| BAZTAN | Administraria | F | Rosa Aiestaran | 33 | | - |
| BAZTAN | Erizaina | BB | Ixabel Aleman | 28 | | - |
| BAZTAN | Hezitzailea | F | Ita Sagaseta | 33 | | - |
| BAZTAN | Ginekologoa | F | Jesus Zabaleta | 33 | | - |
| BAZTAN | Albaitaria | - | Luis Etxegoien | - | | - |
| BAZTAN | Administradorea | - | J.A. González | - | | - |
| BAZTAN | Administradorea | - | Itziar Cordoba | - | | - |
| LESAKA | Medikua | F | Loren Otermin | - | | - |
| ETXALAR | Medikua | F | Javier Baiona | 66 | | - |
| LESAKA | Medikua | F | Carlos Bolea | - | | Ez du asmorik |




Datu iturria: Baztan, Bortziriak, Leitzaldea eta Malerrekako Euskara Zerbitzuak

segitzen du →

doko datuek: Eskualdeko osasun etxeetan lanean ari diren 86 langileetatik 39 baino ez dira gaixoekin euskaraz egiteko gai. Horietatik 27 dira alfabetatuta daudenak, hau da, heren bat baino guttiago. Are gehiago, eremu euskaldunean pediatra eta medikuei eskatzen zaien euskararen ezagupen teknikoa 5ek bertzerik ez dute.

**Pediatren kasua**

Datuak aztertzen segitu ezkero, pediatren kasua suertatuko zaigu azpimarkagarriena. Bortziriak, Baztan, Malerreka eta Leitza-Goizuetako 5 pediatretatik 4 erdaldun hutsak dira eta bosgarrena euskaltegian ari da. Adin ttikiko haurrek erdaraz solasteko dituzten arazoak ikusita, nahiko zaila gertatuko da pediatra eta haurren arteko komunikazioa, horrek dakartzan ondorio negatiboekin.

Pediatren kasua baldin bada larriena, medikuei buruzko datuak ere ez dira batere lasaigarriak; Baztan-Bidasoan dauden 28 medikuetatik 13k bertzerik ez daki euskaraz eta honek diagnosia egiteko orduan akatsak edo gaizki ulertuak sortu ditzake, %60an mediku-gaixo komunikazioaren bitartez zehazten delako (medikuntza testuliburuen arabera).

Erran behar da Baztan eta Bortziriak direla langile euskaldunen falta nabarmenena dutenak, bi zonalde hoietan osasungintzan dihardutenen erdiak gutti goiti beheiti (Baztanen, 31tik 16k eta Bortzirietan 27tik 16k) euskaraz solasteko gaitasunik ez duelako.

**DATUAK INTERPRETATZEKO**

- (0) Ez daki deus
- (1) Ulertzen du
- (2) Ikasten ari da
- (3) Etxeko euskara du
- (4) Alfabetatua
- (5) Alfabetatu teknikoa
- ▬ Duten maila
- • • • Beharko zutena

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| BERA | Medikua | F | Javier González | - | Ez du asmorik |
| BERA | Medikua | F | Antonio Valderrabano | 62 | Ez |
| BORTZIRIAK | Pediatra | F | Belén Compains | - | Euskaltegian ari da |
| BORTZIRIAK | Botikaria | F | Miguel Angel Ariz | - | - |
| ARANTZA-IGANTZI | Erizaina | F | Blanca Buruzko | - | - |
| ARANTZA-IGANTZI | Medikua | F | Begoña Martínez | - | - |
| BERA | Erizaina | F | MªLourdes Etxarri | - | Ikastarorik ez |
| ETXALAR | Erizaina | F | MªJose Indaburu | - | Ikastarorik ez |
| LESAKA | Erizaina | F | Itziar Leonet | - | Ez du eskatu |
| BERA | Erizaina | F | Maite Urkia | - | Ez du eskatu |
| LESAKA | Erizaina | F | Cristina Valls | - | 6. urratsa egitekoa da |
| LESAKA | Administraria | F | MªJose Espelosin | - | - |
| BERA | Administraria | - | Zuberoa Gelbenzu | - | 3. urratsa bere kontura |
| BORTZIRIAK | Fisioterapeuta | BB | Cristobal Gogortza | - | - |
| BORTZIRIAK | Ordezko medikua | - | Eduardo Araujo | - | Bere kontura |
| BORTZIRIAK | Ordezko erizaina | - | Maite Rey | - | Ez |
| BORTZIRIAK | Ordezko erizaina | - | Elena Telletxea | - | - |
| BORTZIRIAK | Ordezko erizaina | - | MªJesus Etxeberria | - | - |
| BORTZIRIAK | Ordezko erizaina | - | Miren Iturria | - | - |
| BORTZIRIAK | Ordezko medikua | - | Juncal Pradoles | | Bere kontura |
| DONEZTEBE | Administraria | F | MªJesus Ganboa | 33 | - |
| DONEZTEBE | Administraria | BB | Maria Uztarroz | 54 | Eskatua |
| DONEZTEBE | Gizarte laguntzailea | F | Iosune Isturiz | 32 | - |
| DONEZ.-BERTIZARANA | Medikua | F | Kontxi Sánchez | 31 | - |
| ITUREN-ZUBIETA-EZKURRA-ERATSUN | Medikua | BB | Maite Lacalle | 35 | Trinkoa |
| SUNBILLA- ELGORRIAGA | Medikua | BB | Pilar Martínez | 44 | Eskatua |
| LABAIEN-DONAMARIA-SALDIAS-URROTZ | Medikua | BB | Diego Durán | 46 | - |
| BESTA EGUNAK | Medikua | F | Nati Urritza | 30 | Eskatua |
| DONEZTEBE | Pediatra | F | Raquel Gaintza | 31 | Eskatua |
| DONEZ.-BERTIZARANA | Erizaina | BB | Lourdes Eneterreaga | 40 | - |
| ITUREN-ZUBIETA-EZKURRA-ERATSUN | Erizaina | BB | Elene yanguas | 31 | Trinkoa |
| SUNBILLA-ELGORRIAGA | Erizaina | BB | Kontxi Calvo | 36 | - |
| LABAIEN-DONAMARIA-SALDIAS-URROTZ | Erizaina | F | Lurdes Altzugarai | 31 | - |
| MALERREKA | Pediatra laguntzailea | BB | Angelines Barberena | 54 | - |
| BESTA EGUNAK | Erizaina | F | Ainhoa Gonzalez | 31 | - |
| DONEZTEBE | Albaitaria | BB | Sara Muniain | 28 | - |
| DONEZTEBE | Albaitaria | BB | Xabier Mendioroz | 58 | - |
| DONEZTEBE | Albaitaria | BB | Ines Zalba | 33 | - |
| DONEZTEBE | Botikaria | BB | Jose Antonio Mendia | 53 | - |
| LEITZA | Medikua | F | Roberto Oses | 29 | - |
| LEITZA | Medikua | F | Luisa García | 30 | - |
| LEITZA | Medikua | BB | MªJose Gonjeta | 30 | - |
| LEITZA | Medikua | BB | Estebe Ezkurdia | 35 | - |
| LEITZA | Erizaina | F | Maria Artieda | 30 | - |
| LEITZA | Erizaina | F | Koldo Loroño | 45 | - |
| LEITZA | Administraria | F | MªCarmen Etxeberria | 40 | - |
| LEITZA | Pediatra | BB | Yolanda Hernández | 38 | - |
| GOIZUETA | Medikua | BB | Maribel Latasa | 38 | - |
| GOIZUETA | Medikua | BB | J.Jabier Etxeberria | 40 | - |
| GOIZUETA | Erizaina | BB | Cristina Urrutia | 30 | - |
| GOIZUETA | Erizaina | BB | Agurne Fernandez | 45 | - |



TELELANGINTZA IKASTAROAK

# *Urtarrilean hasiko da REMOTEren telelangintza ikastaro berria*



**Telelana eta teknologia telematikoetan lan egiteko prestatu ondotik, ikasleei euren enplegu propioa sortzen ere lagundu zaie ikastaro honetan. Argazkian, lehenbiziko ikastaroan parte hartu duten 20 ikasleak.**

Herrietan bizi diren emakumeak telematika lanetarako prestatzea da REMOTE izeneko programaren helburua. Iaz eman zioten hasiera esperientzi berri honi eta, egia erran, interesa piztu zuen. Izan ere, ikastaroan 20 ikaslerendako kapazidadea zegoen bakarrik eta 90 emakumek deitu zuten izena emateko. Bistan denez, 70 emakume parte hartzeko aukerarik gabe gelditu zen.

### Ikasleen aukeraketa

Erran bezala, 90 emakumek eman zuten izena. Horietatik 13 Sakanakoak ziren; 8 Leitza-Larraun-Ultzamakoak; 4 Agoitz-Irunberrikoak; 8 Aezkoakoak; 6 Erronkari-Saraitzu-Nabaskoitze eskualdekoak; 6 Zangotza eta Orba eskualdekoak; 15 Baztangoak; 29 Bortziriak-Malerrekakoak, eta azkenik, 1 Xulapaingoa.

### Enpresa proiektua

Ikastarorako hautatuak izan ziren 20 ikasleek astean bi egunez 4 orduko ihardunaldiak egin dituzte. Klase hauetan euren enpresa proiektua lantzen aritu dira partehartzaileak, bidenabar telelangintzaren lan teknikak ezagutzen dituztela. Enpresa proiektu bakoitzak tutoretza pertsonalizatua jaso du marketing eta enpresa kudeaketan adituak diren maixuen eskutik. Horrela, sortzeko bidean dauden enpresentzako praktikak eta bezeroak bilatzen lagundu diete.

Adibide bezala, enpresa proiektu hoietako batzuk aipamena merezi dute: Julia Calvillo, Igone Lecea, Esther Corres eta Iosebe Aldabe doneztebarraren artean, ZERTEL izenekoa egin dute, laguntza telezerbitzua eskeintzen duena, teleidazkaritza eta teleitzulpen zerbitzuen arloan zehazki.

Isabel Apezteguía eta Elsa Tapia beratarrek, euren aldetik, enpresa kudeaketa eta Udaletxe nahiz erakunde publikoentzako laguntza telezerbitzu proiektua egin dute.

Taldeka ez ezik, banakako proiektuak ere landu dituzte, errate baterako Zigako Esther Mugertzak eginiko Turismo Informazio zerbitzuaren proiektua edota diseinu grafiko eta komunikazio zerbitzuei teknologia telematikoa elkartzea landu duen Maite Zelaieta Igantziarraren lanak.

### Datorren ikasturtea

Heldu den urteko urtarrilean hasiko da REMOTEren formazio planaren bigarren ikastaroa eta kurtsoak 11 hilabete iraunen du aintzinekoak bezalaxe. Aurtengo azken hiru hilabetetan zonalde bakoitzeko hainbat bilera egin eta folleto banatu dira kurtso berriari begira.

Egunotan ezagutuko da ikastaro berrirako izena eman zuten 40 lagunetatik zeintzuk izanen diren 20 aukeratuak. Aukeraketa prozesuan prestakuntza pertsonala edo kurrikulum-az gain, enpresa proiektua eta test psikotekniko batzuetan lortutako emaitzei begiratzen diete. Hiru elementu hauekin, lehendabiziko aukeraketa eginen da, eta elkarrizketa batzuen bitartez osatuko da taldea.

Ikastaroa urtarrilaren zortzigarren egunean hastekoa da eta hurrengo ordutegia izanen du: Astelehen eta Asteazkenero 5etatik 9etara eta hilabetean ortziral bat, ordu hoietan bertan.

• Asier GOGORZA •

### LEHENBIZIKO IKASTAROAN PARTE HARTU DUTENAK

| | |
|---|---|
| Julia CALVILLO | Huarte-Arakil |
| Isabel APEZTEGIA | Bera |
| Maite ZELAIETA | Igantzi |
| Esther CORRES | Altsasua |
| Marina ZUBIRI | Isaba |
| Mª del YUGO | Ollakarizketa |
| Itziar MARTIN | Elgorriaga |
| Mercedes MELERO | Lizaso |
| Edurne LUS | Erronkari |
| Pilar INSAUSTI | Sunbilla |
| Igone LECEA | Alsasua |
| Camino ALLO | Irunberri |
| Iosebe ALDABE | Doneztebe |
| Dolores MIÑANA | Elizondo |
| Raquel RODRIGUEZ | Leitza |
| Esther MUGERTZA | Ziga |
| MªJosé LUNA | Zangotza |
| Elsa TAPIA | Bera |
| Idoia IRIGOIEN | Doneztebe |
| Isabel IBARROLA | Doneztebe |

## DIRU-LAGUNTZAK



### *Oibanak bobetzeko diru laguntzak*

Ingurugiro Departamentuak Foru Agindu baten bidez arautu egin ditu oihanen jabeek 1997an jaso behar dituzten diru laguntzak. Eskaerak egiteko epea urtarrilean bukatukõ da. Bortz subentzio mota daude: lehenengoa mendiaren gestioari buruzkoa eta bertzeak mendien egoerari dagozkionak.

## PUTREAK



### *Putreak bizirik dauden animaliak erasotzen basi dira*

Luzaideko nekazariek ardien desagerpena eta hilketa salatu zutenetik polemika bizia dago aferaren inguruan. Nekazariek putreek beren ardiak erasotu egin dituztela erraten duten bitartean, Nafar Gobernuak gezurtatu egiten du baserritarren bertsioa. Dena den, Urbasan indemnizatu dute nekazari bat putreek bizirik jan zutelako bere behorra.

## ELKARTEAK



### *HORBELA, mindegien elkartea sortu berri da*

Nafarroako mindegi batzuek Horbela elkartea sortu dute bi helburu nagusirekin: bata, bere kideen defentsa eta bertzea kalitatezko zuhaitzen produkzioa.

## ASEGURUAK



### *Diru laguntzarik ez bebi eta ardien aseguruentzako*

Nafar Gobernuak behien eta ardien aseguruentzat diru laguntzarik eman ez badu ere, datorren urtean eskainiko ditu laguntza hauek. Nafar Gobernuak nekazarien aseguru gehienak lagundu ditu, behi eta ardiena izanik salbuespena.

# *Kuota sistemaren etorkizuna, eztabaidan*

Europear Batasuna kuota sistemaren etorkizuna eztabaidatzen ari da, izan ere 1999ko abenduaren 31ean bukatzen baita sistema berezi hau. Franz Fischler europear komisariak azkartu egin nahi du eztabaida prozesua datorren urtearen buruan proposamen zehatza aurkeztu ahal izateko Europear Batasunari.

Esnearen ÓCM (Organización Común de Mercado) delakoaren aldaketaren ardatz nagusia liberalizazioa da, EHNE sindikatuak dioenez. *«Guzti honek prezioen jeitsiera suposatuko luke, esplotakuntzen kontzentrazioa azkartuko zelarik; azienda gehiago esku guttiagotan»*, azaltzen du. Adituen arabera salneurria %40ean jeitsiko litzateke liberalizazioaren ondorioz. Egun ez dago prezio finkorik esnearentzat nazioarte mailan, Hegoameriketan 30 pezetetan saltzen da, Frantzian 50etan...

**EHNE**

**«Liberalizazioak industrializaziora bultzatzen gaitu, horrek osasunaren aurkako ondorioak dakartzalarik, behi eroekin gertatu zen bezala»**

### Proposamenak

Europear Batasunak mahaiaren gainean dituen proposamenetatik hiru azpimarkatuko ditugu. **Lehenengoan**, kuota desagertu eginen litzateke eta prezioen beherakada konpentsatzeko behiari edo produzitutako litro bakoitzari diru laguntzaren bat bideratuko litzaioke. Haragitako behiekin edo ardiekin erabiltzen den sistema da hau, primaren sistema hain zuzen ere. **Bigarren sistemak** ere ez du planteatzen kuotaren erabilera, beraz, merkatu librera murgilduko litzateke sektorea. Zonalde desfaboratuak izanik kaltetuenak merkatu libre batean, beraientzat jarriko liratekeen diru laguntza berezi batzuek. **Hirugarren sisteman** bi kuota mota planteatzen dira: A kuota bertako merkatuetan kontsumitua izateko pentsatua dago eta diru laguntzak izanen lituzke. B kuota, berriz, esportaziorako pentsatutakoa da eta ez luke izanen diru laguntzarik.

### EHNE ren iritzia

EHNE sindikatuak argi du zeintzuk izan behar duten esne politikaren helburuak. Lehenbizikoa, abeltzainen errentak bermatzea salneurri egoki baten bidez. Bertzea, produkzioa kontrolatzea eta banatzea modu egokian, beti ere, lurrari loturik. EHNEren iritziz, oraingo kuota sistema eta helburu horiek kontrajarriak dira: «liberalizazioak industrializaziora bultzatzen gaitu, horrek osasunaren aurkako ondorioak dakartzalarik, behi eroekin gertatu zen bezala».

**• PREZIOEN GORABEHERAK • PREZIOEN GORABEHERAK • PREZIO**






# Gazta-egiteak esnearen balioa bikoiztu egiten du



Carlos Santamaria Nekazal eta Kudeaketa Institutuetako teknikariak azaldu zuenez Nafarroako Unibertsitatean egindako azaroko ihardunaldietan, *«gaztaren ekoizpenak bikoiztu egiten du esnearen balioa 140 pezetatik 240 pezetetara»*. Hori bai, etxeko esku lana erabili behar da, kanpokoa kontratatu ezkero aunitz goitzen baitira kosteak.

Egun, 1.000 tona gazta produzitzen da Nafarroan urtearen buruan. Gehiengoa Idiazabal eta Roncal jatorrizko izendapenek ekoizten dute, baina artisau eta elaboratzaile ttiki aunitz dago hoietaz gain. Santamariak emandako datuen arabera, latxa arrazako 1.700 artalde daude; guztira 200.000 buru gutti goiti beheiti. Artalde hauetatik, 600 bat artzaiek jeizten dituzte. Ardiak jeizten ez dituztenak artalde ttikien jabeak dira, bataz bertze 70 ardi dituztelarik. Ardiak jeizten dituztenek,berriz, 200 bat buru izaten dute. Eta artalde haundienak ardiak makinaz jeizten dituztenenak dira, 300 buru inguruz osatuak.

### Jeizteko makinak

Mekanizazioari dagokionez, 80 artzai dira makina mekanikoak erabiltzen dituztenak ardiak jeizteko. *«Kopuru ttikia badirudi ere, kontutan izan behar da azken urte hauetan eman direla aurrerapaso gehienak. Gainera, bertze komunitateekin konparatu ezkero aurreratuak gaude»* zehaztu zuen ITGko teknikariak.

Gai berari helduz, Antonio Purroy, NUPeko irakaslearen iritziz, *«hemendik hamar edo hamabortz urtera ardi guztiak makinaz jeitziko dira»*, garbitasuna izanik iragarpen horren arrazoia.

*«Hemendik hamar edo hamabortz urtera ardi guziak makinaz jeitziko dira» iragarri zuen NUPeko irakasle den Antonio Purroyk.*

Bertzalde, Alfa Lavaleko ordezkariak ardiak jeizteko erabiltzen den sistema azaldu zuen: *«Jezgailuaren ditiburuek arinak behar dute izan, presioa ttikia eta pulsazioak aldiz, altuak»*.

### Hobekuntza genetikoa

Hobekuntza genetikoa aitzinera doala ziurtatu zuen Gariña jaunak, urtez urte %4ean edo %5ean goitzen baita esnearen produkzioa. *«Latxa arrazako ardi batek 50-100 litro esne ematen ditu urtean, eta 10 edo 15 urtetan 200 litrotara igo daiteke»*, iragarri zuen Gariñak. *«Horrela, ez da bertze arrazaren beharrik izanen»*, gaineratu zuen latxa arrazaren defentsan. Nafarroan 3.500 lacaune daude. Ardi arraza honek 250 litro produzitzen ditu baina ez da latxa bezain gogorra, ezin ditu belardiak eta soroak latxak bezala probextu eta geroztik arditegietan sartu egin behar da ezinbestean, eta kosteak igo egiten dira.







## EMAKUMEA ETA BASERRIA

### EBELen ikastaroa emakume baserritarrentzat

Euskal Herriko Emakume Baserritarren Elkarteak motibazio eta dinamizazio ikastaro bat antolatu du emakume baserritarrentzat. Hauek dira, bertzeak bertze, ikastaroaren helburuak: emakumearen papera aztertzea nekazaritzan, taldeen arteko elkartasuna zabaltzea eta motibazioa bultzatzea. Helburu horiek lortu ahal izateko hiru bloketan banatuko dira gaiak; emakumearen egoera, trebetasun soziala eta motibazioa eta dinamizazioa.

## NAFARROAKO KANALA

### Itoiz eta Nafarroako kanala nagusi Alfaroren programan

Martinez Alfaro Nekazaritza kontseilariaren helburu nagusiak Itoizko urtegia eta Nafarroako kanala egitea dira, parlamentuan eginiko agerraldian erran zuenez. Agerraldi honetarako prestatu txostenaren erdia gai hauei buruzkoa da, zenbait arlo baztertzen dituelarik, EHNEren ustez.

EUSKARA

# Iparraldeko 10 bizilagunetik 7k ez daki euskaraz

**Irisarrin berriki ospatu diren Ondare Ihardunaldietan EKEk (Euskal Kultur Erakundea) emandako datuak dira ondokoak: Iparraldeko populazioaren %27ak bakarrik ezagutzen du euskara. Egoera kezkagarria da benetan, batez ere hegoaldekoarekin alderatzen badugu.**




EGIN

INSEE frantsesaren laguntzaz egin den inkesta honetan, iparralde hiru zonatan banatu dute; Angelu, Miarritze eta Baionak osatzen duten ardatza alde batetik (105.000 bizilagunekin), Lapurdiko barnealdea (100.000 biztanle), eta azkenik Xuberoa eta Behenafarroa (50.000 biztanle).

Datuak ofizialak ez diren arren, euskararen atzerakada nabarmena erakusten dute. Gazteen artean da bereziki larria egoera, 16 eta 24 urte arteko gazteen %11k bakarrik dakielako euskaraz, 65 urtez goitikoen artean kopuru hori %37ra ailegatzen den bitartean.

Inkesta honetan euskararen erabileraz gain euskararekiko jarrera eta interesa ere aztertu dute eta datuek hobera egiten dutela erran behar. Izan ere, euskararen aurkako jarrera gizartearen %12ak erakusten du bakarrik, aldekoak %49a direlarik. Gainera %28ak interes handia azaltzen du euskararekin.

EKEko lehendakariak, Erramun Baxok-ek, datuak aztertzerakoan atera duen ondorio nagusia belaunaldien arteko desberdintasuna, eta zehazki gazteen euskararen ezagupena atzeraka doala izan da, hegoaldean goiti doan bitartean. Bertzetik, Baiona Angelu eta Miarritzek osatzen duten ardatzaren pisua azpimarratzen du, bertan euskaldunen kopurua %9koa baita soilik. Xuberoan, errate baterako, %64-raino goitzen delarik (40.000 biztanle daude bakarrik). Hala ere, arriskutsuena gazteen artean euskarak duen presentzia eskasa dela berretsi du Erramunek.

Euskaldunon Egunkarian gai honi buruzko iritzia plazaratu zuen Erramun Baxok berak Azaroaren 10ean, eta *«iparraldean familiak ez duela bere funtzioa betetzen euskararen jarraipenean»* iragartzen zuen bertatik. Gaur egun iparraldeko familietan bizi den giro erdalduna, gurasoek komunikazioari nortasunari baino garrantzi haundiagoa ematearen ondorioa izanen litzateke Baxok-en aburuz.

Frantziako Hezkuntza ministroa den François Bayrou ere Irisarrin egon zela aipatu behar dugu. Bayrouk *«frantsesek frantsesarentzako exigitzen dutena eman behar diote euskarari»* erran zuen, bertzeak bertze.

## UEMA: III. IHARDUNALDIAK



**Ezkerretik eskuinera Sabin Intxaurraga, Joseba Alvarez eta Mikel Illarregi**

**Mikel ILLARREGI**, UEMAko lehendakaria

### *«Hemendik aurrera debatearen bidea jorratu behar dugu UEMAren barnean»*

Azaroaren 30ean ospatu zen Leitzan Udalerri Euskaldunen Mankomunidadearen (UEMA) 3. Asanblea Orokorra. 60 lagunetik goiti bildu ziren.

Kontent agertu zaigu UEMAko lehendakaria, Mikel Illarregi, *«jende kopuru nahiko haundia bildu ginen, eta alde horretatik baikor azaltzen ahal gara»*. Balantze orokorra egiterakoan, bilkuraren izaera azpimarkatu nahi izan du, *«ez da debaterik egon, esposizione hutsa izan da dena»*.

Bertzetik, euskararen aldeko erakunde honen kontra PNVk erran zuenagatik *«harrituta eta eraberean mindu ta»* daudela erran digu Mikelek. Talde politiko batzuk UEMA tresna bezala erabiltzen ari zirela eta, Asanbleara ez joatea erabaki zuen PNVk egun batzuk lehenago. Gai honek polemika bizia sortu du, eta erantzun gogorrik ez ematea onartu zen asanblean, *«eztabaida honek mesede gutti egiten baitio euskarari»* Mikel Illarregiren hitzetan. Hala ere, PNVri bere jarrera argitzeko dei egin zioten Leitzan.

Asanbladan, UEMA osatzen duten 29 udaletako ordezkariek eta HB nahiz EAko partaideek solastu zuten, bakoitzak gaiaren azalpena eta gerora begira segitu beharreko bideetaz aritu ziren, baina eztabaidara iritsi gabe. Mikel Illarregiren ustetan *«proposamenak egitea ona bada ere, are aberasgarriagoa litzateke hoien inguruko eztabaidan saiatzea. Hemendik aurrera egiten ditugun bilkuretan debatearen bidea jorratu beharko dugu»*.



## IKA EUSKALTEGIAK

# «Euskaltegira animatzen ez den jendearentzat dago pentsatua Etxetik Plazara»

**Etxetik Plazara IKAk mendialdean dituen euskaltegi guziek gauzatutako proiektua da. Leitza, Malerreka, eta Bortzirietako euskaltegietako irakasle talde batek lan egiten du bertan.**

**Nortzuk zarete Etxetik Plazara-ren egileak eta zeintzuk dira proiektua abiarazteko izan dituzuen arrazoiak?**

Etxetik Plazara IKAk mendialdean dituen euskaltegi guziek gauzatutako proiektua da. Leitza, Malerreka, eta Bortzirietako euskaltegietako irakasle talde batek lan egiten du bertan. Euskaltegiok ohartu gara zenbait jenderengana iristeko zailtasunak ditugula. Astia falta dela, ikasteko zaharregiak direla edo bertzerik gabe, ikasgela batera hurbiltzea ez duelako gustuko, jende franko ez zaigu euskaltegira etortzen. Hau dena dela eta, proiektu hau gauzatzea erabaki genuen, batez ere, jende horrengana ailetzeko, euskara lantzeko beharra ikusarazteko eta ikasteari dioten beldurra kenarazteko.

**Bigarren etapa honetako Etxetik Plazara aldizkariak, nolako harrera izan du momentuz?**

Gu hagitz kontent gaude. Azkenekoarekin 150en bat erantzun jaso ditugu.

**TTIPI-TTAPAz aparte, bertze aldizkaritan ere zabaltzen da Etxetik Plazara?**

Orain arte TTIPI-TTAPAren barnean banatzen zen baina dagoeneko, eurek hala eskatuta, Larraun eta Araitz-Beteluko MAILOPE aldizkarian ere banatzen da. Guztira 7.700 ale partitzen dira aldi bakoitzean.

**Zein izan da, zuen ustez, berritasun nagusia?**

Bigarren etapa honetan aldaketa garrantzitsuena irratsaioak dira. Dagoeneko, XORROXIN, eta ARALAR irratietan astero emititzen dira, eta hilbeltzatik aitzinera KARRAPE eta GURE IRRATIAN ere hasiko dira.

**Ze helburu dit proiektu berri honek?**

Irratsaioekin, Etxetik Plazara kuaderniloa osatu nahi dugu. Ez ditugu normalean gauza berdinak lantzen baina zerikusia badute. Medio bakoitzak bere abantailak ditu eta horiek aprobetxatzen saiatzen gara. Irratiak, jendearekin harreman zuzena eskeintzen digu. Ez dugu ahaztu behar hizkuntza batek 4 trebetasun eskatzen dituela; irratiarekin jendeak entzutea, konprenitzea eta solas egitea lortu nahi dugu, koaderniloaren helburua leitzea, konprenitzea eta idaztea den bitartean.

**Zuek prestatzen al dituzue irratsaioak?**

Hegoaldeko hiru irratietan, hau da, XORROXIN, KARRAPE eta ARALARen guk geuk prestatzen eta egiten ditugu irratsaioak. Horretarako irratiek lekutxo bat uzten digute euren programazioan. Baionako GURE IRRATIAn berriz, Arbonako gau eskola arduratuko da irratsaioez.

**Azkenik, zuen irakurleei zerbait erran nahi badiezue...**

Eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu Etxetik Plazara kuaderniloa eginez eta gure irratsaioak entzunez parte hartzen duten guziei.

*«Medio bakoitzak bere abantailak ditu eta horiek apropetxatzen saiatzen gara. Irratiak jendearekin harreman zuzena eskeintzen digu.»*

OIHANGINTZA

# Larreak erretzeko beharrezkoa da baimena eskatzea

## Aurkidi Elkarteak mintzaldiak egin ditu Elizondon, Donezteben eta Lesakan

Aspalditik datorren ohitura da larreak eta alhatokiak eskuratzeko sasiz betetako mendi zatiak erretzea.
Gaur egun egiten diren erretze gehienak ohianberritze lanetarako izan ohi dira, eta ez dute arrisku haundirik suposatzen aitzinetik baimena eskatzen baita.
Hala ere, alhatokiak (ardiak bazkatzeko larreak) hobetzeko arras guttitan eskatzen da baimena. Erreketa hauek, gainera, gauez egiten dira batzutan, haizegoa dagoela. Adituek axolagabekeria eta ezjakintasunari egozten diote hau, gaua ez baita erretzeko unerik egokiena, hezetasun haundiagoa dagoelako egunez baino.



Espezie batzuk luzarora desagertarazteko, errate baterako oteak, aisa hobe da larrea garbitzea erretzea baino.

### Teknika arriskutsua

Teknika hau baztertzeko zenbait arrazoi ematen digute:
Lurraren pobretzea ekartzen du, egun guttitan desagertu egiten baita hautsek mendiari eragiten dioten onura. Hautsak baratzerako onak badira ere, mendian ez da prozesu bera gertatzen.
Bertzetik, sasien birprodukzioa bultzatzen du teknika honek, mendia behin eta berriz erretzean suari gogor egiten dioten espezieei ugaltzeko bidea ematen zaielako, bertzeak bertze iratzea, otea, erratza...
Horrez gain lurraren higadura azkartu egiten da, osagai aunitz galdu eta landareak murriztuz. Horrela, klimaren erasoen aitzinean babesik gabe gelditzen da lurrazala.
Azkenik, erran behar da materia organiko ororen erretze txarrak berekin ekarri ohi duela Ozonoaren zuloa handitu eta negutegi efektua areagotzea, eta horrekin batera, lurrean klima aldaketa larriak sortzea.

*Larre-erretzeak gauez egiten dira batzutan, haizegoa dagoela probextuz.*

### Baimenak

Baimenak eskatzea beharrezkoa da larrea erretzeko intentziorik baldin badago. Horretarako erretzea gertatuko den herrian bi edo hiru hilabete lehenago eskatzea aski izaten da.
Larreak hobetzeko bertze aukerak ere badaude, erretzeaz gain. Traktorearekin sasiak kendu edo malda haundiegia bada eskuz moztu, ondotik lurra kareztatu eta erein ahal izateko. Era hauetako bakar batek ere balio ez badu, KONTROLPEKO ERREKETA eginen da.



## BARATZE XOKOA

### GOMENDIOAK

➲ **GOROTZA: Osagarriak, berezitasunak eta erabiltzeko moduak**
Gorotzaren konposizioa oso aldakorra da, zein animalia den, nolako ohatzea duen eta zer jaten duen kontutan hartzen bada. Normalean, %20-25 bitarteko materia idorra duen gorotzak 4kg/tn nitrogenoa du, 2'5kg/tn anhidrido fosforikoa, 5'5kg/tn potasio oxidoa, 0'5kg sufrea, 2kg magnesio, 5kg kaltzio, 30-50g manganeso, 4g boro, 2g kupre.
Zaldi gorotza kontzentratuagoa eta aberatsagoa da elikagaietan, batez ere nitrogenoan eta fosforoan. Ongarri gisa gorotza erabiltzen bada kontutan hartu behar dira gorotza horren osagaiak eta baten bat falta den, lurrari bertze gisa batera emateko.
Gorotza goiz bota behar da lurrean, ahal izanez gero udazken edo neguan, hormak hasi baino lehen, udaberrirako ongi xehetua egoteko. Banatu ahala lurperatu beharko litzateke, horrela nitrogeno guttiago galduko baita. Lur gainean utziz gero berehala galdu egiten da. Lurperatzerakoan lur azal azpian utzi behar da, azpiko zolara sartu gabe. Ez badugu lurperatzeko modurik, komenigarria da multzo edo mukurutan uztea, harrotzeko lagungarri izaten baita horrela uztea.
Gorotza freskoa, gisa honetara onartzen duten landareekin erabiliko da soilik, baita arboletan eta belategietan ere.

### Baimena eskatzeko behar diren agiriak

- ➲ Eskatzailearen edo eskatzaileen izen abizenak; larreak bertze jabe bat duenean, beronen izen-abizenak ere.
- ➲ Nortasun Agiria
- ➲ Poligono eta lur-zatiaren zenbakia.
- ➲ Erreketaren hedadura Hektareetan.
- ➲ Dagoen landaretza (sasiak, oteak, txilarra...)
- ➲ Erretzearen zergatia

***Baimenak bi edo hiru hilabete lehenago eskatu behar dira, eta eguraldiagatik Administrazioak ezarritako epealdian ezin izan bada erreketa burutu, eskatzaileak LUZAPENA eskatzen ahal du.**

# EGUTEGIA abendua-hilbeltza

**BARATZEAN**

**1.- Erein**
- BARATZEAN: Tipulak, espinakak, ilar berdeak, baratxuriak, babak...
- NEGUTEGIAN: (Martxo aldera) letxuak, tomateak, piperrak...

**2.- Landatu**
- Letxuak, azak, porruak...

**LORATEGIAN**

**1.- Erein**
- Bulboak: Nartzisoak, tulipanak, irisak...

**2.- Landatu**
- Pentsamientoak, margaritak, alheliak, zuhaixkak, arbolak...

# ONGARRIAK: NOLA ETA ZERTARAKO ERABILI (eta II)

**ZALDI BUZTANA** egosita (Equisetum arvense).
Kantidadeak:
Landare freskoa:.1k. - 10l.ur.
Landare idorra :150g-10l.ur eta %0'5-1 sosa silikatoa erdoiaren kontra erabiltzen da. Salda hau udaberrian eta udan erabil daiteke fruitu-arboletan, komenigarria da hostoak ateratzen hasi baino lehen tratamendu honekin hastea.
Purina: Zaldi buztana+osina proportzio berdinean.
Urte guzian erabiltzen ahal da landareak indartzeko.

**OSINA**: Irakin duen purina,
Kantidadeak:
Landare freskoa.:10l. ur.-1k.
Landare idorra: 200g-10l ur.
%20ko purina urakin nahasi eta gero, urte guzian erabil daiteke landareak hazteko, lurra purina horrekin bustiz. Patatetan erdoia somatu baino lehen.

**KAMAMILOA** infusioan
Kantitateak:
50g/10l ur landare idorrak.
Landarea indartu egiten da gaitzen kontra. Landare-haziendako ere ona izaten da.

**KARDABERA**: Landare osoa erabiltzen da, zaina barne.
Purina.
Kantitateak:
Landare freskoa : 1'5-2k-10l. ur. Landare idorra:150-200g 10l.ur. Udaberrian landareak azkarrago hazteko ona da. Udazkenean lurrari emateko.

## *Heldu den urteko besta egunak.*

Nafarroako Merkataritza, Turismo, Industria eta Lan kontseilaria den Ramón Bultók heldu den urteko besta egun ordaindu eta berreskuraezinak finkatzen dituen Foru Agindua sinatu berri du. Ondokoak dira besta egun hoietxek:

- Urtarrilak 1 (Urteberri eguna)
- Urtarrilak 6 (Errege eguna)
- Martxoak 19 (San Jose)
- Martxoak 27 (Ortzegun santua)
- Martxoak 28 (Ortziral santua)
- Martxoak 31 (Pazkoako astelehena)
- Maiatzak 1 (Langileen eguna)
- Abuztuak 15 (Amabirjin eguna)
- Azaroak 1 (Santu guzien eguna)
- Abenduak 3 (Xabierko san Franzisko)
- Abenduak 6 (Espainiar konstituzioaren eguna)
- Abenduak 8

# DIRULAGUNTZAK

Informazio gehiago: CEDERNA-GARALUR
Baztan ✆ 580561 Bortziriak-Malerreka ✆ 451654 Leitza ✆ 510009

## LANA

- **Autonomo gisa hasi nahi duten langabeentzat.**
Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialaren 96/92 zenbakian argitaratu zen (92/08/10). Foru Dekretua 259/92. 400.000 pezetako dirulaguntza. Deialdi iraunkorra da eta muga egunik gabekoa.

- **Lan esperientziarik gabeko langile titulatuak kontratatzeko dirulaguntzak.**
Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialaren 96/92 zenbakian argitaratu zen (92/08/10). Foru Dekretua 259/92. 200.000 eta 350.000 pezeta arteko dirulaguntza kontratu iraupenaren arabera. Deialdi iraunkorra da eta muga egunik gabea.

- **Lanpostu berriak sortzeko Kooperatiba eta Elkarte Anonimo Laboraletan (S.A.L.)**
Deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (86/02/27). 86/02/21eko Agindu Ministeriala. 250.000 eta 500.000 pezetako dirulaguntza langile bakoitzeko bere egoeraren arabera. Deialdi iraunkorra da eta muga egunik gabekoa.

## NEKAZARITZA

- **Nekazaritza ekologikorako laguntzak. Alor horretan prestatu nahi duten pertsona eta elkarteentzat dirulaguntzak.**
Deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (95/02/08). 95/01/20ko 51/1995 Agindu Ministeriala. Deialdi iraunkorra da eta muga egunik gabekoa.

- **Emakumeak enplegatuko dituzten industria lantegi berritzaileendako dirulaguntzak.**
Europako Komunidadetik bideratutako dirulaguntza. Proiektu bakoitzeko 4.000 eta 10.000 ECU bitarteko dirulaguntza.

- **Emakumeak presentzia ttikia duten lanbideetan, kontratazio laguntzak enpresentzat.**
Deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (86/02/21). 86/02/27eko Agindu Ministeriala. 250.000 pezeta edo gehiagoko dirulaguntza kontratu bakoitzeko. Deialdi iraunkorra da eta muga egunik gabekoa.

- **Ezinduak kontratatzeko dirulaguntzak.**
Deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (86/02/27). 86/02/21eko Agindu Ministeriala. Dirulaguntzak: kontratu iraunkorretan 2.000.000 pezeta gehienez kontratu bakoitzeko; aldibateko kontratuetan Aseguro Sozialaren %100a eta soldata minimoaren %50a eta autonomoetan 400.000 pta. Deialdia iraunkorra.

- **Ingurugiroa zaintzen lagunduko duten nekazal produkzioentzat laguntzak.**
Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (95/06/09). Maiatzaren 22ko 113/1995 Foru Agindua. Deialdia iraunkorra eta muga egunik gabea.

- **Basabereek egindako kalte-ordainak.**
Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (95/06/12). Maiatzaren 19ko 589/1995 Foru Agindua. Deialdia iraunkorra eta muga egunik gabea.

## ERREKAK

- **Erreka bazterrak garbitzeko dirulaguntzak.**
Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (93/03/17). Otsailaren 24ko 117/1993 Foru Agindua. Deialdia iraunkorra eta muga egunik gabea.

## INDUSTRIA

- **Ttiki eta Erdi Tamainako Industrien Garapenerako Laguntzak.**
Deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (95/05/23). Maiatzaren 8ko Agindua. Deialdia 1999 arte egonen da indarreanJ7

## AZKEN ORRIALDEKOAK



### Belate eta Almandozko tunelak

Heldu den urteko urtarrilean bukatzekoa omen da Belateko tunelaren obra, hala adierazi dute behintzat Nafarroako Gobernutik. Tunel honek 3,5 metroko bi karril izanen ditu eta Iruña-Behobia ardatza, nahiz Elizondotik Iparraldera doan bidea hobetzeko balioko du. Almandozko tunelari dagokionez, 1994an hasi ziren obrak, eta dagoeneko zulaketa lanak akituak dituzte.



### Ez da haize parke gehiago eginen

Nafarroako Gobernuak herrialdean haize parke gehiago ez egitea erabaki du, eta helburu hori biltzen duen dekretu bat prestatu du. Hasiera batean 40 haize parke egiteko asmoa zegoen, 2.000 Energia Planak aurrikusten zuenez. Energia Plan honen helburua alor honetan kanpoarekiko menpekotasuna guttiagotzea da, hemen kontsumitzen den energia elektrikoaren %82 a kanpotik ekartzen baita.



### Karkar-en birziklatzea merkeago eta eraginkorrago

Espainiako Sustapen Ministerioak egindako informe batean ageri denez, Errioxan ondoan dagoen Karkar-eko zabortegian birziklatzea Iruñerriko zabortegian birziklatzea baino merkeago eta eraginkorragoa da.

# *«Gasna onak egiteko garbitasuna da printzipalena, esnearena eta esnea ukitzen duten gauza guziena»*



**Pedro TELLETXEA**

Beratarra

JOANTZENEKOBORDAKOA DA PEDRO, ETA BERE BIZI OSOAN EGIN DITU GASNAK. DUELA URTE BATZUK, HALERE, BERE BETIKO SISTEMA UTZI ETA 'IDIAZABALGO MODUAN' HASI ZEN GASNAK EGITEN. GEROZTIK ARRAS GUSTORA DABIL; GASNAK AISA HOBEAK ATERATZEN ZAIZKIO, HOBEKIAGO KONTSERBATZEN DIRA, ETA GAINERA, SARIAK IRABAZTEN DITU.

**Beran egin berri den Lurraren Eguneko Gasna Lehiaketan lehen saria eman dizute. Aurtengoa, dena den, ez da lehenbiziko aldia sariren bat irabazten duzula. Zein da sekretua gasna onak egiteko?**

Lehenbizikoa da esnea garbia izatea, eta horrek'in batera, esneak ukitzen duen guziak ere desinfektatua egon behar du; ontziak, tresneriak... zernahi gauza. Bertzenaz mikrobio aunitz biltzen dira eta gasna harrotu egiten da hasiera beretik. Garbitasuna printzipala da.

Gainerakoan, gasna egiteko modua ez da batere zaila. Esnea berotu eta gatzagia eman behar zaio 32 gradutan. Hiru zentimetro gatzagi 10 esne litrorendako. Gatzatu denean, puskatu eta berotu 37 gradutaraino. Lehen eskuekin lehertzen genuen esne gatzatua bainan sistema honekin beti erran digute hobe dela hariarekin egitea, pita-hariekin egindako kuadro batekin errate baterako. Eta horrela, poliki-poliki mugitzen ibili behar da 37 graduak hartu arte berotuz. Gero bildu ixkinera eta kontu gazura ateratzeko, eta azkenean, zimitzetan sartu eta prentsan jarri 2 kiloko kargarekin. Nahikoa dira lau ordu kontzea prentsan.

**Non aritu zinen teknika berriak ikasten?**

Idiazabalgo tekniko batek erakatsi zigun Mugaireko San Martin Eskolan. Lehendik Biriatuko Lekuonak ere erakatsia zigun hortako dina. Gipuzko aldean gehien gehienak Idaizabalgo teknikarekin egiten dituzte gasnak.

**Hasieran erran dugu aurten ere Berako lehenbiziko saria zuretzat izan dela. Urtero presentatu zara?**

Lurraren Eguna egin zen lehenbiziko urtean, orain dela hamar urte, orduan ez nuen gasnarik presentatu. Ondotik bai, urtero presentatuketu dut gasnaren bat.

**Eta urtero saria izan duzu?**

Urte batean izan ezik urtero izan dut sariren bat, batzutan lehenbizikoa, bertzetan bigarrena... Hala ere gustatuko litzaidake jende berria ere animatuko bazen eben gasnak ekartzera, aski gasna politak egiten dituzte-eta. Azken batean gasna onak egin ezkero balio baitu eta sistema honekin segurtasun haundia izaten da egiten diren gasnak onak ateratzeko.

Lurra

Landa Lurraldeari buruzko aldizkaria

**Argitaratzailea: Lurra** Kultur Elkartea • Herriko Etxeko Plaza, 1 • 31780 BERA **Ale honetan parte hartu dute:** EHNE-Nafarroako teknikoek, Asier Gogorzak, Baztan, Bortziriak eta Leitzako Euskara Teknikariek eta bertze zenbaitzuk. **Maketazioa eta Banaketa:** ttipi-ttapa **Inprenta:** Graficas Ona **Tirada:** 6.300

Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza hartu du

## ARANTZA

# Besta egun hauetako ospakizunak berrituko dira bertze urte batez

### Eskolako haurrek ohiko antzeslanak eskainiko dituzte igande honetan

ELIXABET ETA GARBIÑE

Eguberriak gainean ditugula eta, berriro badira zenbait ekitaldi antolatuta herrian. Alde batetik, eskolako haurrek, urtero bezala zenbait antzeslan eskainiko dizkiete herritarrei abenduaren 22an. Bertan eginen da, eraberean, eskolako zareen zozketa. Bertzalde, Etxalarko eta Igantziko haurrekin ere elkartuko dira beraien antzerki lanak prestatzeko.

Abenduaren 24an Olentzeroa karrikaz karrika eta baserriz baserri ibiliko da. Eguberri egunean berriz, plazara joanen dira olentzeroekin eta hantxe erre eginen dute. Ondotik, haurrendako jokoak izanen dira, Gazte Asanbladak antolatuta.



**Eskolako neska-mutikoak beraien antzeslanak eskaintzeko gogoekin izanen dira aurtengoan ere** Artxibokoa

Joan den urtean berreskuratu zen ohiturari segituz, aurten ere Gazte Asanbladakoak Santaketan ibiliko dira abenduaren 27 eta urtarrilaren 3an. Nahiz eta oraindik ez dagoen zehazterik egun bakoitzean zein auzotan barna ibiliko diren, eguna iritsi baino lehen erranen da, herritarrak jakinaren gainean egoteko.

### Idazkariaren ordutegi berria

Igantzi eta Arantzako udalek idazkari bera dute eta honela, bi Herriko Etxeen artean erabaki da idazkariaren ordutegi aldaketa. Orain arte Arantzan hiru egunetan egoten bazen, orain bi egun terdi egonen da. Astelehenetan, goizeko 8etatik 3,30ak arte; asteazkenetan 8etatik 11,30ak arte eta ortziraletan, 8etatik 3,30ak arte egonen da Arantzako Herriko Etxean idazkaria.

### Garbiketa lanak

Eskolako eta medikuaren etxeko garbiketa lanetaz Rosario Agesta arduratuko da aurten ere.

### Eskiatzera joateko autobusa

Gazte Asanbladak eskiatzera joateko autobusa antolatu du abenduaren 29rako. Apuntatzeko epea, igande honetan, abenduaren 22an bukatuko da.

BEKO ERROTA
Lore eta landareak
Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26
LESAKA

SAROBE
okindegia
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

ANTZUZELAI S.L.
Irungo errepidea - BERA - Tel. 948-631317
HARRI NATURALA
ATERATZEA eta LANTZEA
Antzinaldeak, Angeluak, Orma antzinak, Leihoak, Ateak, Arkuak, Pilareak
Tximiniak, Erlaizak, Moldurak, Zokaloak, Hilarriak, Marrazkiak
'Abujardadoa' Zahar antzekoa
Mazizoa Txapeatua
ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK

IRU BIDE
ERRETEGIA
Tfnoa: 637127
LESAKA

AYLA
ARGAZKILARITZA
• Estudioa
• Erreportaiak
• Ezkontzak
• Argazki materiala
• Fotokopiak
• Bideoa
• Markoak
Bixente Taberna
Bidasoa karrika, 8
BERA © 630075

XATURETXEA
JATETXEA
Tfnoa: 63 70 27 LESAKA

SUNBILLA

# Antzakaitz taldeak antolatu du aurtengo Errege Kabalgata

## Egitarau zabala prestatu da egun horretarako

IXABEL ETA JOSUNE

Antzakaitz kultur taldeak antolatu du aurtengo Errege Kabalgata eta egun horretan egitarau zabala izanen da. Hasteko Meza Nagusia izanen da elizan. Ondoren, haurrek joareak joko dituzte herrian barna. Erregeak trenbidetik etorriko dira, Leku-Eder karrika aldera. Bertan, Sunbillako Abesbatzakoak egonen dira esperoan. Erregeak, abesbatzarekin batera eliz atariraino joanen dira, herritik itzuli bat egin ondoren. Elizatarian jaiotza paratua egonen da. Leku berean erregeen aurkezpena eginen da. Norbaitek Kabalgatan parte hartu nahi badu, larunbatero 3etan izaten dira bilerak Bustitz ostatuan.



**Aspaldiko urtetan bezala, aurten ere Olentzeroa aterako da herrian**

Artxibokoa

Bertzalde, aitzineko alean aipatu bezala, larunbat honetan, abenduak 21, eguerdiko 12etan izanen da Olentzero egunerako azken entsaioa, Arantxaren bajeran. Musika tresna bat jotzen dakitenei entsaiora eramateko dei berezia luzatu diete antolatzaileek.

Olentzero egunean, eguerdiko 2,30etan elkartuko dira Arantxaren lokalean.

❖ **Karrika Nagusiaren** konponketa lanengatik 16.404.702 pezetako dirulaguntza jaso da Nafarroako Gobernutik. Betrauneko aitzinaldean agertzen diren putzuak moldatuko dira.

## flash

❖ **Dirulaguntzak kirol ekitaldietarako**

Nafarroako Elur Lera Kirol Elkarteari 25.000 pezetako dirulaguntza eman dio Herriko Etxeak II. Nafarroako Lera-Zakur txapelketaren antolaketagatik. Bertzalde, futbito txapelketaren antolaketarako ere bertze 25.000 pezeta eman ditu Udalak.

❖ **Urristibil** baserria landa-etxe bezala erabiltzeko baimena eman du Nafarroako Gobernuko Industria Kontseilariak.

❖ **Frontoia konpontzeko**

25 milioi pezetako proiektua lehenbailehen eginen du udalak, Nafarroako Gobernuak dirulaguntza emateko epea datorren urtean akituko baita.


SANTAMARIA
Jatetxea
Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



BELARRA
OSTATUA - JATETXEA
Ameztia karrika • DONEZTEBE
Tfnoa: 45 03 06

FUNERARIA ZERBITZUAK
DONEZTEBEn
MALDAERREKA, S.L.
24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE

ILEAPAINDEGIA
"ARTAZI"
Zure ile, zure gustora apaindua
Ezkontza, jaunartze eta bataioetan erregalatzeko oparitxoak
• Erregaloak eta Kremak
Zorionak eta Urte Berri On
Gindal Ibiltokia, 3 - 1.D
Tel. (948) 45 08 44
31791 SUNBILLA

## DONEZTEBE

# Eguberrietarako ekitaldi franko antolatu dira

### Zenbait kantaldi eta antzeslan izanen dira eta Olentzeroa aterako da

**TXEMA ALDABE**

Orain dela ez aspaldi Donezteben Santa Luzia egunak zuen ospea berreskuratu nahian hainbat ekitaldi arrakastatsu egin ziren abenduaren 13an. Orain, berriz, Eguberriak gainean ditugula eta, Doneztebeko udaleko Kultur Batzordeak ekitaldi franko antolatu ditu.

Hasteko, abenduaren 20an, ortziralean, iluntzeko 8etan Bordatxo dantzalekuan Irungo Ametsa abesbatza izanen da, Argentinako "Kari Pampa" taldearen laguntzarekin meza kriolloa eta Eguberrietako kantak abestuko dituztelarik. Ekitaldiak ordu terdiko iraupena izanen du.

Abenduaren 24an, Eguberri bezperan, arratsaldeko 4etan Olentzeroa aterako da eskolatik. Elizagibelan, San Migel auzoan, Parrokia, Nagusia, Mourges, Merkatari, Ameztia eta Parrokia karriketan barna ibili ondoren Jubilatuen tabernan akituko dute bere ibilbidea. Ibilbide honetan Doneztebeko Abesbatzaren laguntza izanen du eta ongi akitzeko, jubilatuen ostatuan txokolate bero-beroa izanen dute.



**Amaia Zubiriak kantaldia eskainiko du Eguberri eguneko meza ondotik Lesakako abesbatzarekin batera**

Artxibokoa

Abenduaren 25ean, Eguberri Egunean, arratsaldeko mezan Amaia Zubiriak eta Lesakako abesbatzaren eskutik Eguberrietako kantak izanen dira. Biharamonean, hau da, 26an, arratsaldeko 6etan eskolako gimnasioan, Iruña Pequeño Teatro taldearen saioa ikusgai izanen da eta abenduaren 28an, meza ondoren elizan bertan, Doneztebeko talde instrumentala arituko da. Eta bitartean, Erregeen Kabalgataren prestaketa antolatzen ariko dira, zenbait moldaketa egin nahi baita aurten.

#### Doneztebeko alkate-zinegotzien irabaziak

Alkate eta zinegotzien irabaziak aurten zenbatekoak izanen diren onartuta dago. Alkateak 381.200 pezeta eskuratuko ditu urtean, alkate-ordeak 137.500 pezeta eta gainontzeko 7 zinegotziek 68.757 pezeta. Irabazi hauek sesionetan eta Batzordetan parte hartzeari dagozkie. Bertzalde, autoa erabili behar denean, kilometroko 33 pezeta ordaindu-ko da.

#### Arau subsidiarioen gain informatzeko bilerak egunotan burutzen ari dira

Abenduaren 18an, asteazkenean, hasiak dira Herriko Etxean Arau Subsidiarioei buruzko informazioa eskaintzen. Asteazkeneko bileran, SAPU 1, SAPU 2 eta SU 6 partzelei buruz aritu ziren.

Ortzegunean, abenduak 19, arratsaldeko 4,30etan Alde Zaharrari buruzko informazioa eskainiko da eta arratsaldeko 6,30etan SAPU 7 partzelari buruz.

Ortziralean, abenduak 20, arratsaldeko 4etan SU 3 partzelari buruz, 5etan SAPU 3ari buruz eta 7etan SU 11ri buruz arituko dira solasean.

Gai honetan interesa dutenei bileretara azaltzeko deia luzatu die Herriko Etxeak.





ARIN
ASEGURUAK
**Era guzietako aseguroak preziorik onenean**
autoak, kamioiak, etxe, istripu, bizitza, aurrezki...
**Poliza bakoitza norberaren beharretara egokitzen dugu**
Parrokia 21, Tel.-Fax: 450266 • DONEZTEBE

GAZTELUKO OSTATUA
• Eguneroko menua eta karta
• Logelak
© 450105 • GAZTELU

**ttipi-ttapa**
*6.300 harpidedun*
*22.000 irakurle*

# MALERREKA

## 39 milioiko aurrekontua izanen du Urrotzko Udalak

39.154.071 pezetako sarrera-irteerak izanen ditu aurten Urrotzko udalak, azken batzarrean onartutako behin betiko aurrekontuaren arabera.

Gastuei dagokionez, gehiena inbertsioetan joanen dira, 16.753.425 pezeta erabiliko baitira horretan. Bertze 16.667.000 pezeta ondasunak eta zerbitzuak erosten gastatuko dira.

Diru sarrerei dagokienez, gehien bat tasa eta gisako sarreren bidez bilduko du Udalak: 13.794.478 pezeta. Zergen bitartez 3 milioi pasatuak bilduko dituzte eta subentzioen bidez, milioi t'erdi pezeta bertzerik ez. Gastuak kitatzeko, Herriko Etxeko kutxan dauden 15.657.280 pezeta atera beharko dira aurten.

## Iturengo Kultur Egunak arrakastatsuak

Jakina denez, abenduaren 5, 6 eta 7an Ibintza kultur taldeak Kultur Egunak antolatu zituen. Abenduaren 13an burututako bileran, balantzea egin zuten kultur taldeko kideek eta gustora gelditu ziren lortutako arrakastarekin.

Egun hauetan denetarik izan dela herrian, antzerkia, kirolak, hitzaldiak, kontzertuak (*King Mafrundi* eta *Marruma*). Larunbata izan zen jende gehien bildu zen gaua, 50 lagun inguruko bertso afariaren ondotik dantzaldia izan baitzen *Etzakit* trikiti taldearekin.

## Neguko Kultur Zikloa antolatu du Langarrak

Langarra euskara taldeak azken urteotan egin ohi duen bezala, neguko kultur zikloa antolatu du. Aurten lau herrietan eginen dira, Saldias, Donezteben, Sunbilla eta Iturenen, hain zuzen.

Abenduaren 26an, arratsaldeko 5etan txotxongiloak izanen dira **Saldias**en. Egun berean, baina **Doneztebe**ko eskolako gimnasioan, arratsaldeko 6etan, Iruña Pequeño Teatrok eskainitako antzeslana ikusteko aukera izanen da. Abenduaren 27an ipuin kontalari bat egonen da **Sunbilla**n eta, abenduaren 28an, azkenik, **Ituren**en Lamixine Berako Antzerki Taldeak *"Lilien lilura"* antzeslana aurkeztuko du.


Pentsio Planak

ETORKIZUNA SEGURTATU

DESGRABATU

Rural Kutxarekin

Oraintxe da DESGRABATZEko momentua, ETORKIZUNA SEGURTATZEN duzun bitartean.Nafarroako Rural Kutxak bere Pentsio eta Jubilazio Planak eskaintzen dizkizu, desgrabazio fiskal altuena eskaintzen dizkizun produktuak, alegia. Zatoz Rural Kutxara. Zure beharretara egokitzen diren soluzioak eskainiko dizkizugu.

NAFARROAKO RURAL KUTXA





# UPTE BERRI ON


## MARIXUS elektrogailuak

**Eneterreaga anai-arrebak**

- Aukera haundiak TB, bideo eta musika ekipoetan
- Opari on bat egin nahi baduzu izugarrizko aukera plantxa, kafetera, batidora, etabarretan
- Bertako zerbitzu teknikoa

Bertako Zerbitzu Teknikoa

Zarandia 3, ✆ 637070 · **LESAKA**

## Ostargi Optika

**OPTIKO OPTOMETRISTA**

- Ikusmen azterketa orokorra
- Kontaktu lenteen adaptazioa
- Audifonoak
- Lantegietarako protekzio betaurrekoak...

Bidasoa karrika, 8 · BERA · ✆ 948 - 63 07 53

## DEN DENA NAHI BADUZU, ERAMAN EXPRESS




**RENAULT EXPRESS R.L. 1.9 DIESEL FURGOI edo COMBI, 55 Z.P. edo 65 Z.P.**

**%22**

**MERKEAGO***

**Debalde 3 Urteko Garantia-Luzapena****

*Salmenta sustatzeko merkealdia stock-eko autoentzat hilabete bukaera arte Express Forest-ean izan ezik. Ezin zaio gehitu beste promozioei.
** Garantia-luzapenaren txartela 1+2 edo 100.000 Km. Renault Services kontratuaren arabera

RENAULT GIDATZEKO PLAZERRA

**PEDRO GARMENDIA, S.A.**
Errep. z/g - Tfnoa.: 58 04 31 - ELIZONDO

**TALLERES SATESTEBAN**
Leitzako Errep. Kma. - Tfnoa. 45 02 82 - DONEZTEBE

**SEMPER HNOS., S.L.**
Irun - Iruña Errep. Tfnoa.: 63 06 21 - BERA

# URTE ZAHARREKO AFARIAK




Urte Zaharreko Afariak aukeran
Afalondoko giroa alaitzeko,
Javier Arrosarena izanen dugu
bere akordeoiarekin.
Hamabietan mahatsak, eta
ondotik... saski eder bat
zozketatuko da.
Goizaldera baratxuri zopak.

*Erreserbak egiteko*
*deitu lehenbailehen*

**✆ 948- 63 41 79 • ARANTZA**

## ETXANDI TXOKO jatetxea

Urdaiazpikoa, Esparragoak,
Langostinoak, Almejak Saltsan

Langostinoak plantxan

Salda

Bixigua

Solomilloa plantxan guarnizioarekin

Konpota eta turroi ezberdinak

Homenaje ardoa, cava, kafea eta kopa

Urtezahar mahatsak

**PERTSONAKO PREZIOA: 4.500 Pta.**
***Erreserbak egiteko deitu***
***✆ 948- 45 04 91 / ITUREN***

***Olentzero Menua*** ***2.000***
***Eguberri Menua*** ***2.500***
***Errege Menua*** ***3.000***

***Bisita gaitzazu eta Urtezaharreko zozketan parte hartu: Bi pertsonendako kotilloia. Aurten, orkestaz gain Luis Llamas-en show ikusgarria.***

***Logelen eskaintza berezia. Inuxente egunean Sorpresak!***

**Abenduaren 14tik Errege eguna bitarte. 25ean itxia**




Donostiatik 20 minutura autobiatik.
Leitzako Gaina • Tel.:948- 51 01 25



## BEREAU
**jatetxea • Hotela**

Urdaiazpiko iberikoa

Kanapeak

Zainzuri beteak

Fritoak eta Piper beteak

Legatz erdia plantxan

Solomilloa

Tarta, kafea, kopa eta puroa

Ardoak: 'Irache' gorria, 'Gran Irache Crianza 89' beltza eta 'Codorniu' Cava

**PREZIOA: 4.500 Pta.**

***Erreserbak egiteko deitu***
***✆ 948- 62 75 09***
**Lesakako zubia • LESAKA**



# URTE ZAHARREKO AFARIAK

## IGANTZI JATETXEA

Urdaiazpikoa, patea, etxeko nahaskia, fritoak eta langostinoak

Salda

Haragia edo arraia aukeran

Postrea

Eguberrietako kutixiak

Mahatsak

Ardoa, kafea, kopa eta txanpaina

**PERTSONAKO PREZIOA: 3.500 Pta.**

***Erreserbak 28a baino lehen***

***✆ 63 75 02 / IGANTZI***



## AMEZTIA JATETXEA

*Urdaiazpiko Iberikoa*

*Marisko Koktela*

*Langostino egosiak*

*Hegazti salda*

*Ameztia legatz solomoa*

*Etxeko solomilloa*

*Konpota eta turroi desberdinak*

*Ardoak, Codorniu Txanpaina, Kafea eta Kopak*

*Mahatsak eta Kotiloi boltsa*

**PERTSONAKO PREZIOA: 4.800 Pta.**

***Erreserbak egiteko deitu 29a baino lehen***

***✆ 948- 45 00 28***

**DONEZTEBE**

## BURLADA JATETXEA

*Entremes hotz eta beroak*

*Marisko krema*

*Rapea plantxan*

*Solomilloa guarnizioarekin*

*Postreak aukeran*

*Ardoa, txanpaina eta kafea*

*Urtezahar mahatsak*

**PERTSONAKO PREZIOA: 4.950 Pta.**

***Erreserbak egiteko deitu***

***✆ 948- 63 40 27***

***ARANTZA***

## Hotel Mugaire

*Urdaiazpiko Iberikoa*
*Zainzuri eta langostino pastela*
*Marisko Salpikoia*
*Txipiroi eraztunak frixituak*

*Txangurroa labean*
*Bakailuz betetako piperrak*

*Haragi Salda*

*Legatza romana erara txipiroi saltsan*

*Txerrikume errea entsaladarekin*

*Urren Moussea natillekin*

*Turroiak aukeran eta mahatsa*

*Kafea, kopa eta puroa. Ardoak: Beltz eta gorri hoberenak aukeran, Codorniu cava*

**Goizaldera arte dantzaldia**

***Erreserbak egiteko deitu (Plaza limitatuak)***

***✆ 59 20 50 / Hotel Mugaire***



The Angels

GAZTE MODA
OSAGARRIAK
*Amaia Irazoki eta Isabelle Chevalier zuen zain aurkituko dituzu*

IPARLA KIROLAK
Kirolak orokorki
Santiago 51 • ✆ 58 05 85 • **ELIZONDO**

Amaya
ZORIONAK ETA URTE BERRI ON
Ameztia • ☎ 450163 • DONEZTEBE
- *Era guztietako opariak gizon-emakumeentzat*
- *Markako perfume eta kremetan ofertak*

Urtarrilaren 5ean irekia
**Zure zerbitzura gaituzu!**

Txirrista
Elizagibela 4
✆ 450881
**DONEZTEBE**
- **1-16 taila bitarte**
- **% 10-15-20ko deskuentoak denboraldiko arropatan**

*urte berri on!*

RADIO BIDASOA
Eztegara Pasealekua 14
Tel. eta Faxa: 63 03 77
**BERA**

CANAL+
*Abenduko kuota dohainik*

*Zorionak eta Urte Berri On*

BORTZIRI
ASISTENTZIA TEKNIKORAKO ZERBITZUA
Tfnoa: 63 10 91
Iturlandeta, 1 • 31780 BERA

**TELEFONOA OPARITZEAZ GAIN GURE AHOLKUAK JASOKO DITUZU (hedadura, osagarriak, etab...)**

MoviLine
MoviStar

Urte berri zoriontsua opa dizuegu

# MALERREKA

### Merkatariak euskaraz

...kanpaina hasia da dagoeneko eta Malerrekako ehun bat komertziotara bisitaldiak egiten ari dira Roberto Galindo eta Arantza Ziganda doneztebarrak. Dendari eta bezeroen arteko harremanean euskara bultzatzeko helburuarekin.

### Asteburu Mikologikoa Elgorriagan

Onddo eta zizen Kofradiako ekitaldi mikologikoak Elgorriagan ospatu ziren abenduaren 14 eta 15ean.

Larunbat arratsaldean onddo eta zizen erakusketa izan zen Kultur Etxean eta 8etan hitzaldia eta diapositiben emanaldia Garcia Boñaren eskutik. Igandean, goizeko 9etan zainetan onddo haziak dituzten arbola landaketa egin zen Ameztian. 11etan meza Juanito Mariezkurrena eta Salvador Arozarena hildako kofradeen oroimenez. 12etan Onddo Beltzari egindako monolitoa eta Onddoen Bidearen inaugurazioa. 12,30etan Kofradiaren oraina eta geroaz eztabaidatu zuten mahainguru batean eta ohorezko kofrade berriak izendatu zituzten.

Azkenik, bazkari eder batekin burutu zen asteburu mikologikoa

### Kinto bazkaria Saldiasen

Urte bukaera hurbildu ahala kinto afari eta bazkariak egiteko ohitura da. Abenduaren 1ean, 49an jaiotako hamasei lagun elkartu ziren Saldiasko ostatuan, Patziku Perurena eta Kandido animadore zituztela. Umore eta bazkari ederra izan zuten.

# LEITZA-LARRAUNALDEA

## Adinekoentzat erresidentzia egitea eskatu du Artzapezgoak

Ezinduak eta beraien buruaz baliatzen direnak hartuko lituzke

BRIGIDA ETA JUANA

Araitz, Areso, Basaburua, Betelu, Imotz, Larraun, Leitza eta Lekunberriko parrokiek osatzen dute Larraungo Artzapezgoa. Bere ordezkariak, apezak eta laikoak dira. Artzapezgo honek ikerketa bat egin du zonaldean eta ondorioen artean inportanteena honako hau: 1.500 pertsona daudela jubilatuak eta eskualde honetan ez dagoela inolako erresidentziarik. Beharra bai, ordea, bai ezinduendako, baita bere buruaz baliatzeko gai direnentzako ere. Oso garbi ikusi da, eraberean, pertsona ongi dagoen bitartean edo bere buruaz baliatzen denean etxean lagundu behar zaiola. Baina gaur egun arazo batzuengatik edo besteengatik, atera behar izaten dutenean urrutira joan behar izaten dute, kilometro asko eginez, beraien hizkuntza eta ohiturak aldatuz eta oztopo bihurtuz. Garai hauetan urte gehiago bizitzen dira eta soluzio baten esperoan daude.

Artzapezgoaren ideia udal guztiei arazo honen berri idatzi batean azaltzea izan zen, eta elkarren artean hitz egin ondoren, Mankomunitatea sortzeko asmoz biltzea, horrela, arazoari irtenbidea bilatzen saiatzeko. Erresidentzia non kokatu eta nola antolatu udalek erabaki beharko lukete. Herri bakoitza bere aldetik, badira hiru edo lau proiektu lurraldean, baina bakar batek ez du ezinduak kontuan hartzen. Orain da momentua eta erabakia hartu beharra dago, Nafarroako Gobernuak beste aurreproiektu bat egina baitu eta emendakinak aurkezteko garaia da. Hau aurrera ateratzen bada zaila izango da inolako erresidentziarik hemen inguruan egitea. Artzapezgoaren ordezkariek adierazi dutenez, *"denon arazoa da eta kontzientziatu gaitezen"*.

**Nafarroako Zahar Etxeak**




| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Bera | 14 | Zangotza | 27 | San Adrian |
| 2 | Lesaka | 15 | San Martin Unx | 28 | Faltzes |
| 3 | Doneztebe | 16 | Artaxona | 29 | Azkoien |
| 4 | Elizondo | 17 | Tafalla | 30 | Funes |
| 5 | Alloz | 18 | Erriberri | 31 | Alesbes |
| 6 | Gerendiain | 19 | Lerin | 32 | Balterra |
| 7 | Sarasa | 20 | Lizarra | 33 | Korella |
| 8 | Iruñea | 21 | Altsasu | 34 | Zentroniko |
| 9 | Burlata | 22 | Olazti | 35 | Fitero |
| 10 | Agoitz | 23 | Biana | 36 | Kaskante |
| 11 | Muruzabal | 24 | Sesma | 37 | Tutera |
| 12 | Ilunberri | 25 | Lodosa | 38 | Buñuel |
| 13 | Barasoain | 26 | Karkar | 39 | Kortes |

## GOIZUETA

# Sukalde-zokotik kanpora?

Berrogeita hamar partaide hasi berriak dira bi ikastarotan, ia guztiak emakumeak

ESTEBAN AROZENA

Gure herriko emakumeak ez daude aurtengo negua sukalde-zokoko sutondoan igarotzeko asmotan, egunak motzak izan arren ongi aprobetxatzekotan baizik. Zergatik diogu hau? Ba, duela aste pare bat hasi eta ondorengo hilabetetan jarraituko duten bi ikastarotan 50 lagunek izena eman dutelako, hauetatik 48 adin guztietako emakumeak.

Makramea, gantxilloa eta puntua erakusten da gehien bat Rosa Begiristainen zuzendaritzapean lehengo astean hasitako kurtsilloan, eta oraindik erabat finkatu gabea egon arren, 40 ordu iraungo duela dirudi Rosa berak esan zigunez. Asteazken goizeko 10etatik 12etara biltzen dira apuntatutako 25 emakumeak.

Sueltoko dantzak (fandangoa eta arin-arina) erakutsiko dira gehien bat aipatutako beste ikastaroan. Hau, 145.000 pezetako aurrekontuarekin, Bianako Printzea erakundeak eta herriko udalak antolatu eta ordaintzen du. 36 orduko iraupenarekin, larunbat arrasaldeko 4etatik 7etara ematen da 23 emakume eta 2 gizon partaide direla.

### Haurren aisialdia

Abenduaren 23, 26, 27, 30 eta hilbeltzaren 2 eta 3ko arratsaldetan ez dute aspertzeko aukerarik edukiko lautik hamalau urte bitarteko herriko haur eta gaztetxoek, aisialdi programa aberats bat antolatu baita ordurako Udaletxeko Euskara Zerbitzuari esker.

Eskulanak, herri kirolak, kantu-jolasak, txotxongiloak eta antzerki emanaldiak dira, besteak beste, Mª Jose Narbarte, Asier Lujanbio eta Igaratza Apezetxeak elkarlanean egindako programaketan agertzen diren ekintzak.

Azkenean, irabazle suertatu zen honetaz gain, beste hiru proiektu ere aurkeztu ziren Herriko Etxearen deialdira, denak oso onak gainera, erabakia hartu zuten adituek esan zigutenez. Beraz, hiru gazte hauen eskuetan egongo dira haurrak, goian aipatutako egunetan, arratsaldeko 4etatik 7etara.



**Haurrek ez dute aspertzeko astirik izango egun hauetan** Artxibokoa

## ARESO

# Larrea elkarteko zezen-jate jendetsua

80 lagun bildu ziren

JUANA Mª SAIZAR

Larrea elkartean, urtero bezala zezen-jatea ospatu zuten azaroaren 30ean. Aldi honetan, 80 lagun bildu omen ziren eta alaitzeko Txomin Garmendia eta Joxe Lizaso bertsolariekin batera Lesakako Xalbador akordeolaria izan zen.

### Euskararen Eguna

Abenduaren 8an Euskararen Eguna ospatu zen, Guraso Elkarteak antolatuta. Goizean goiz hameketakoa banatu zuten plazan, taloak eta pintxo ezberdinak jateko aukera emanez. Herriko trikitilariek bere saioa eskaini zuten, han bildu ziren lagunentzako. Haurrak alaitzeko bikote bat kontu kontari aritu zen eta joku batzuk ere egin ziztuzten. Arratsaldean kanpoko hiru bikoteren artean trikitixa txapelketa burutu zuten. Gero, txokolatea banatu zuten eta bukatzeko trikitixarekin dantzaldia izan zen.



**Eurien ondorioz Astomela gainezka**

Aurreko egunetan eroritako euri eraso ikaragarrien ondorioz abenduaren 1ean itxura hau zuen Astomela errekak. Erreka haundiegia ez bada ere, ur kopuru haundia eramango zuen seguruenik egun horretan. Argazkia: Juana Mª

# LEITZA

# Kultur kutsu eta maila haundiko hilabetea izaten ari gara

## Zinema aldia hasia da eta bi antzerki ikusgai izanen dira datozen bi larunbatetan

JOSEBA AZPIROZ

Aurreko ostiralean hasi zen neguko zinema aldia *Striptease* eta *Jumanji* pelikulekin. Datorren asteburuan *Misión imposible* eta *Pocahontas* eta abenduaren 27 eta 29an, *Transpotting* eta *Babe: el cerdito valiente* proiektatuko dira. Ostiraletan, gaueko 10etan eta igande iluntzeko 7etan 450 pezeta kobratuko dira eta igande arratsaldeko 5etan 150 pezeta. Ez da herri askotan horrelako aukerarik izaten, beraz aprobetxa dezagun.

### Bi antzeslan datozen bi larunbatetan

Txalo taldeak Agatha Christieren *Xagu Tranpa* antzeslana eskainiko du abenduaren 21ean, zineman, arratsaldeko 7etan. Emanaldi hau Kultur Taldeak eta Euskara Batzordeak antolatua da. Antzerkiaren atsedenaldian zozketa bat eginen da: ikusle bakoitzak bere ustetan hiltzailea zein den idatzi beharko du paper batean. Londresera bidai bat, aste batez eta bi pertsonentzako izanen da saria.

Bestalde, abenduaren 28an, larunbata, arratsaldeko 8etan, Leitzako zineman *Pello Indianoa* antzerki musikala ikusteko aukera izanen da. Ordu bat eta laurdeneko iraupena duen obra hau Xagu, Xator eta Satitxus Bandak, Etzakit taldearen laguntzarekin egindako ikuskizuna dugu. Sentsazio ezberdinak zihurtatzen dizkigute (umore asko, une hunkigarriak ere,...).



### Eguberri eta Urte Berri On

Jaiotzak prestatzen hasiak gara, baita Olentzaroak ere. "Hator hator mutil etxera" inoiz baino indar gehiagorekin kantatu beharko diogu aurten Olentzaroari, izan ere, besteak beste, herriko semea eta intsumitua den Oskar Astibia espetxean sartu baitute, kartzelan (hirugarren graduan zegoenean) izandako leherketaren ondorioz. Zer gizarte klase ote da gure hau, gehiengo bat ejertzitoari intsumitzearen alde agertzen dena, eta aldi berean, gure gazteak espetxeratzea "onartzen" duena? Artxibokoa

### Euskal Telebista hobeki ikusten da auzoetan

Azken hilabete hauetan saio eta proba franko egin ondoren, azkenean Euskal Telebista hobeki hartzeko modua bilatu da. Asko saiatzen ari da Udala euskarazko telebistaren alde. Erreka auzoan izan zen lehen saioa, gero Erasoten. Bi auzo horietan deus ikusten ez zena, orain ikusi egiten da. Eta gainera, Baztarla (Aizan) gaineko seinalea ere hobetuko da, eta lan horren ondorioak Eguberri ondoren nabaritzen hasiko gara, herrian bertan, baita auzoetan ere. Eta Areson.

### Eskualdatze hitzarmenak

Azken hiru urteotan egin diren 75 irastorlekuen konbenioen ondorioz, jendeak eskrituratuak zeuzkan 265'7 hektareatatik 56'6 partikularrentzat gelditu dira eta gainerako 209'1 hektareak Leitzako komunalarentzat.


ttipi-ttapa
6.300 harpidedun
23.000 irakurle
publizitaterik eraginkorrena
✆ 63 11 88

barnek s.l.
Sukalde mobleen fabrika
Zuzeneko salmenta
Lesakako sarreran, Beko-Errota ondoan
Otsango auzoa • LESAKA • Tel.: 637850, Fax: 637928

muñeca de Trapo
IRUN
Luis Mariano, 35
Tel.: (943) 62 52 55

## BAZTAN

# Igandean hautatuko dira hamabortz herrietako alkateak

Batzarreak goizeko 10etatik atsaldeko 5etara egonen dira idekiak

JOSEBA IGARABIDE

Ordenantzek erraiten dutenari jarraiki, Eguberri aitzineko igandean hautatuko dira Baztango 15 herrietako alkateak. Abenduaren 22an, beraz, Batzarreak eginen dira herri guzietan, eta goizeko 10etan hasi eta arratsaldeko 5ak artio, idekiak egonen dira hautes-mahaiak.



Boza emateko zita berri bat izanen da Baztanen igande honetan

Artxibokoa

### Prozeduraren xehetasunak

Duela bi urte ordenantzei egin zitzaien aldaketei kasu eginez, zentsoak aste bat lehenagotik agerian jarriko dira herri guzietan, eta herriren batean hautagairik aurkeztuko ez balitz, bertze Batzarre bat eginen da urteberri egunean. Alkategai bakarra aurkeztuko den herrietan, ordea, ez da boturik eman beharrik izanen, eta bera izanen da izendatua alkate automatikoki. Garai batean konpetentzi gehiago zuten herrietako alkateek, baina gaur egun autonomia eta indarra galtzen ari direla uste dute gehienek, antolaketa modu hau mantentzearen alde egon arren.

Azkenik, Balleko Etxean gaur egun kontzejal direnak ezin dute herriko alkategai izan.

## Baztango zortzi taldek euskara bultzatzeko zenbait eskari egin dizkiote Balleko Etxeari

Baztango zortzi taldek, euskarak ballean duen egoeraz kezkaturik eskakizun batzuk luzatu dizkiote Balleko Etxeari eta Nafarroako Gobernuari, beraien irudikoz, euskarak dituen lehentasunik premiazkoenak eta zuzendu beharrekoak zerrenda batean agertuz. EKBk *Eman euskarari berea* kanpainarekin bultzatutako ekimen honek Baztango AEK, Baztandarren Biltzarra, Baztango Mendigoizaleak, EHNE, Euskal Herrian Euskaraz, LAB, Doike euskara taldea eta Xorroxin Irratiaren atxikimendua jaso du.

## Euriaren eraginez kaltetutako bideak moldatzeko dirulaguntza eman du Nafarroako Gobernuak

Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioko kontseilariak 6.984.812 pezetako dirulaguntza eman dio Balleko Etxeari, eurien eraginez kaltetutako bideak moldatzen erabiltzeko. Lanen aurrekontu osoa 9.503.145 pezetakoa da, beraz, %73,5 ordaintzen du Nafarroako Gobernuak. Iruñeko Gobernuaren proposamenaren arabera, gainerako 2.518.333 pezetak estaltzeko mailegua edo kreditua eskatu beharko luke Balleko Etxeak. Gabriel Silva ingenaria arduratuko da lan hauen zuzendaritza teknikoaz.

## flash

**Olentzeroa**

Olentzeroa bisitak prestatzen hasia da. Lehenik Erratzura joanen da, 20an agertuko baita. Eskolako haurrak herrian barna pasiatuko dute. Elizondoko ikastolak, Iruritan eta bertze zenbait lekutan izanen da, abenduaren 24an.

**Pilota valentziarra**

Valentzian pilotan jokatzeko duten modu ezberdinak erakusten aritu zen Valentziako pilotari talde bat San Francisco egunean, Laxoa elkarteak gonbidatuta. Giltxaurdi karrikan *galocha* jokuan aritu ziren (garai bateko pasakaren gisakoa) eta frontoian, berriz, *trinquet valenciá* erakutsi zuten.

**Arkupekoak Volkswagen-en**

Arkupeak jubilatu elkartekoak Volkswagen lantegia bisitatu zuten Berriozarko Landaben poligonoan. Adineko jendeari gehien harritu zitzaiena, hain jende guttirekin horrelako makina haundiak lanean aritzea izan zen.

**Egur loteak**

Bertze herrietan egin duten bezala, Lekarozen 19an eta Arizkunen 22an banatuko dituzte. Goizeko 8,30etan herriko plazan egon behar da motozerrarekin.

ARMUA Jatetxea
Zugarramurdiko karretera 3. Km
Tfnoa.: 59 91 31 - URDAZUBI

ARROPA DENDA
MERCERIA
FANTXIKE
JAIME URRUTIA, 24
TFNO. 580312
ELIZONDO

CERVANTES
HELVETIA SEGUROS
Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia

DANBORIENA
OKINDEGIA
GOZOTEGIA
✆ 453403 - ARIZKUN

## BAZTAN

# Euskara hutsezko eredua nagusitu da aurtengo kurtsoan bailarako ikastetxeetan

Aurten lehen aldiz matrikulatu diren 60 haurretatik 55ek euskaraz ikasiko dute

TTIPI-TTAPA

Haur eta Lehen Hezkuntzan (3 eta 12 urte bitarte) ikasten ari diren 578 neska mutikoetatik 453 (%78,3) euskara hutsez ikasten ari dira D ereduan eta gainerako 125 ikasleak gazteleraz ikasten dute (A eredua). Haurrak euskaraz matrikulatzearen aldeko joera gehiago nabarmentzen da lehen aldiz eskolara joan direnen artean. Ikasturte honetan 60 dira klasean hasi diren hiru urteko haurrak eta horietatik 55 (%91,6) dira euskaraz hasiak direnak eta 5 bertzerik ez gazteleraz.

DBH, IEE, BBB eta UBIko datuak ez dira hain baikorrak, baina gehienetan euskaraz ikasten ari diren ikasleak nagusitzen dira.

San Martin Lanbide Eskolan 51 ikasle ari dira, horietatik 28k (%55) euskaraz ikasten dutelarik eta 23k A ereduan.

Lekarozko institutuan 540 ikasle ari dira, horietatik 318, D ereduan (%58,8) eta 222 (%41), A ereduan.

Azkenik Elizondoko Lanbide Eskola da B eredua (erdia euskaraz, erdia gazteleraz) eskaintzen duen ikastetxe bakarra eta eredu horretan ari dira aurtengoan matrikulatu diren 143 ikasleetatik 75 (%52,5). D ereduan 38 ikasle ari dira (%26,5) eta A ereduan, berriz, 30 ikasle (%21).

### Antzerki saioa

Abenduaren 19an, arratsaldeko 3,30etan Elizondoko San Frantzisko Xabier ikastetxean *'Jaberik gabeko zopa untzia'* antzestuko du Iruña Pequeño Teatro taldeak. Antzeslana *'Mozorro Berri'* kanpainaren ekitaldien barnean antolatu du Nafar Gobernuko Hizkuntz politika sailak.




### Errepide zati bat eroria Almandozen

Almandozko gaina inguruan lur erorketa izan zen eta errepidea mehartua dago. Halabeharrez, Almandozko tunela estreinatu behar izan zuten. Erorketa hori moldatzeko 20 milioi pezetako aurrekontua izanen da eta dagoeneko lanean hasiak dira. Bertzalde, Nafarroako Gobernuko Herrilan kontseilariak Belate eta Almandozko tuneleko lanak bisitatu zituen abenduaren 11n.

## flash

**Guraso elkartea sortu da Erratzun**
'Ertzuin' izeneko Guraso Elkartea sortu berri da Erratzun. Ikastetxe publikoko gurasoen helburua, haurren hezkuntza eta bizimodua hobetzea izanen da.

**Baztango artistak Iruñan**
Nafarroako Aurrezki Kutxak Iruñeko Amaiurko Gaztelu aretoan, *'75 urte plastika eta pintura'* erakusketa antolatu du. Jose Mª Apezetxea Erratzuko margolaria eta Bozateko Xabier Santxotena eskultorearen lanak ikusgai izanen dira.

**Ikastaroa Gurutze Gorrian**
Elizondoko Gurutze Gorrian anbulantzia erabiltzeko laguntzailea izateko ikastaroa antolatuko du. Izena emateko 452277ra deitu.



Lurrindegia eta apaindegia
✆ 580283 • Santiago 53 • ELIZONDO
Zorionak eta Urte Berri On
*Opariak, markako kremak eta perfumeak*

COCO'S
**Bakero eta Sport arropa**
Santiago 55 • ✆ 581149 • ELIZONDO

Pierresenea
**OSTATU - JATETXEA**
*Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa*
Iturriotz Auzoa • ✆ 592043 • **ORONOZ-MUGAIRI**

## ZUGARRAMURDI

# 'Atxuriatik Larrunerat' kultur hilabetearen ekitaldiek arrakasta izan dute herrian

### 114 lagun bildu ziren abenduaren 7ko bertso eta txiste afarian

MARGARI ETA KORO

Arrakasta haundia izan zuen "Atxuriatik Larrunerat" kultur hilabeteko lehenbiziko ekitaldiak: bertso-txiste afariak. Azketa jatetxean 114 lagun bildu ziren giro ezin hobeagoan eta Jon Sarasua eta Unai Iturriaga bertsolariekin jendea gustura egon bazen, Txomin Ezponda eta Ugutz Robles txiste kondalariekin azkenean irriz lehertu ziren.

Hauen ondotik musika ere antolatua zen eta goizeko seiak arte iraun zuen bestak, bertsolariak dantzaritan bihurtu zirela eta.

Afariaren aldetik ere bazegoen jakinmin edo kuriositate pittat, jatetxea uda huntan edeki baita eta gehienek ez zuten oraindik estreinatua. Dirudienez txalo bat eman behar zaie sukaldariei, batez ere bildoxkiarengatik.

Larunbat honetan berriz, jende ausarki etorri zen gaupasara. Lehenik *Lau Behi* eta *Tapia ta Leturia Band* aritu ziren eta ondotik, dantzaldia *Irrintzina* taldearekin.





**Giro ederra eta umore hobeagoa izan ginuen Atxuriatik Larrunerat kultur hilabetearen lehen aitaldian. Bertso eta txiste afarian 114 lagun bildu ziren eta aski gustura egon ziren, irriz, kantuz eta dantzaz.**

### Lanak lezeetan eta Herriko Etxean

Herriko Etxean eta lezeetan obrak egiten ari dira. Herriko Etxean kanpoko aldeko lau paretak errebokatu edo luzitzen ari dira (bazuten beharra, egia erran). Lezeeri ere errepaso orokor bat eman behar zaie (harrizko pareta sarreran, barandilak...) eta urtearekin finituak behar dituzte lanak.


ZALAIN
JATETXEA
EGUNEKO MENUA ETA KARTA
Zalain Auzoa
✆ 63 11 06
BERA
Boda eta banketeak ematen dira

LANCHAS
• Parketak - Tarimak
• Kutxillatzea eta bernizatzeak
• Estaldura orokorrak
Bera ✆ 630735 • IRUN ✆ (943) 622305


ZURE ARGAZKIAK
ORDU BATEAN EGITEN DITUGU
FOTO MENA
KALE NAGUSIA 4
TEL ETA FAX: 45 08 25
DONEZTEBE
SANTIAGO KALEA 40
TEL: 58 01 55
ELIZONDO
IA 100 URTE KALITATEA ETA PROFESIONALTASUNA ESKEINIZ

BODEGAS ERRASTI, S.L.
Bodegas Gailur
ARABAR ERRIOXAKO ARDOAK
GETARIAKO TXAKOLINA
Zonarako banatzailea
TXOPORRO Ardoak
M. Azpilkueta, 6 • ELIZONDO
✆ 58 02 78

SARA

# Telethon izeneko kanpainaren herriko ekitaldia abendoaren 7an iragan da

6.000 libera bildu dira Saran

JACQUELINE ETA MIXEL

Larunbat arratsaldean, berrogoi bat heldu eta haurrek parte hartu dute Telethon izeneko myopathiaren garaitzeko kanpainaren ekitaldian. Bakoitzak bere diru laguntza Herriko Etxe azpiko kutxan ezarri eta abiatzen ziren itzuli baten egiteko inguruetan, bai oinez baita txirrindulaz ere. Ekitaldi andana honen helburua bikoitza baitzen, alde batetik dirua biltzea eta bertzetik gorputzari gogor egitea.



Saran 6.000 libera bildu dira Telethon myopathiaren garaitzeko kanpainaren alde

Artxibokoa

### 6.000 LIBERA BILDU DIRA SARAN

Azpimarratu behar da Sarako Urtxintxak esku baloi taldeak eta rugby elkarteak erabaki dutela sartzeekin bildu diruaren parte baten emaitza egitea Telethon kanpainari. Kanpaina hunen bultzatzaileek adierazitakoaren arabera, Saran 6.000 libera inguru bildu dira.

### Trinketean jabe berriak

Hogeita hamazazpi urtez Arrieta familiaren eskuetan izan ondoan, Henri eta Aña Mari Dutournier senar-emazteek beren esku hartu dute Sarako trinketa. Suerte aunitz desiratzen diegu ondoko egunendako.

### Ikastolan haurtzaindegia

Berrikitan burasoek azaldu zuten haurtzaindegi baten beharra eta dirudienez, hau datorren urteko urtarriletik goiti zutik jarria izanen da.

### Atxuriatik Larrunerat

Aitzin TTIPI-TTAPAn aipatu bezala, igande honetan, abenduak 22, Atxuriatik Larrunerat Kultur Hilabetearen azken ekitaldia burutuko da Saran. Arratsaldeko 4etan Omordian, 12 urtetik behitikoei zuzendutako literatur lehiaketan sariztatuek beren lanak aurkeztuko dute eta sari bana emanen zaie. Ondotik, Koldo Amestoy kondalariak "Urdinola" ipuinaldia aurkeztuko du.


ttipi-ttapa

6.300 harpidedun
22.000 irakurle

herriko etxeko edantegia
Michel eta Kattin
Guerendiain



Tfnoa: 59 54 25 19
64130 SARA

IKASOFT
Konekta zaitez INTERNET-era eta ikasi gurekin
@ Internetera konektatzeko zerbitzu publikoa
@ Internet ikastaroak
@ Informatika prestakuntza gela
@ Informatika ekipoen salmenta
@ Sareen instalazioa eta moldatzea
@ Internet banatzailea
@ WEB orrialdeen diseinu eta programazioa
Cipriano Larrañaga, 3 behea
IRUN
Faxa eta Tfnoa: (943) 61 46 85



6 URTEKO GARANTIA

BAZTAN
ALTZARIAK
zurgindegia
121 errepide nazionala, 54. km
Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA
Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
FAGOR

## EZKONTZAK

**Francisco Maria Gastearena Elizalde** eta **Patricia Irigoien Saiz**, Ezkurra eta Elizondokoa, azaroaren 23an.

**Miguel Mugiro Altuna** eta **Mª Teresa Larregi Etulain**, Elizondo eta Arizkungoa, azaroaren 23an.

**Santiago Dendarieta Lucas** eta **Idoia Eskudero Martin**, Erratzu eta Iruritakoa, abenduaren 7an.

## JAIOTZAK

**Julen Perurena Agirre**, Elizondokoa, azaroaren 19an.

**Julen Goikoetxea Billabona**, Leitzakoa, azaroaren 27an.

**Estitxu Errandonea**, Sarakoa, abendoaren 1ean.

**Aitor Altzugarai Zubiri**, Lesakakoa, abenduaren 2an.

**Beñat Mitxelena Sagastibeltza**, Berakoa, azaroaren 24an.

**Aitor Pombar Arrieta**, Berakoa, abenduaren 7an.

**Koldo Ordax Inbuluzketa**, Elgorriagakoa, abuztuaren 29an.

**Sarai Etxarte Sunsundegi**, Igantzikoa,

1996an jaiotakoei **TOPELIBRETA** 3.000 pezetarekin eta **TOPEBABERO** polit bat oparitzen diegu. Amendako **"Está creciendo"** liburua daukagu.

IRUÑEKO KUTXA

## HERIOTZAK

**Mª Cruz Larralde Otxoteko**, Legasan, abenduaren 7an, 83 urte.

**Maxima Zubieta Tomasena**, Etxalarkoa, azaroaren 29an, 81 urte.

**Tiburcia Etxeberria Jaurena**, Arizkungoa, azaroaren 29an, 89 urte.

**Jose Iturralde Aleman**, Anizkoa, abenduaren 1ean, 76 urte.

**Juan Cruz Etxenike Iparagirre**, Arizkungoa, abenduaren 2an, 76 urte.

**Ramona Goikoetxea Indakoetxea**, Ezkurrakoa, abenduaren 3an, 82 urte.

**Jon Apezetxea Tapia**, Lesakakoa, abenduaren 3an, 22 urte.

**Marcelino Sanjurjo Lizardi**, Lesakakoa, abenduaren 8an, 68 urte.

**Martin Francisco Bazterrika Legarreta**, Iturengoa, abenduaren 8an, 82 urte.

**Mailuix Perugorria**, Sarakoa, azilaren 22an, 74 urte.

**Lucien Lasseron**, Sarakoa, abendoaren 8an, 93 urte.

**Ruperto Mikelarena Inda**, Legasakoa, abenduaren 4an, 76 urte.

## RUPERTO MIKELARENA INDA

**1996ko abenduaren 4an hil zen Legasan, 76 urte zituenean, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondotik.**



Bere familiak bihotzez eskertu nahi ditu hartutako doluminak eta hileta elizkizunetara agertu izana. Goian bego.

*Esker Onak*
*Urtemugak*
*Eskelak*

Familiakoren bat edo lagunen bat hiltzen bazaizu **ttipi-ttapa**k eskelak, urteurrenak edo esker onak agertzeko toki bat eskeintzen dizu.

Deitu gure telefonora:

**✆ 63 11 88**



# AGUR, JON

**DYAko hire lagunak**

# Eguberrietako ohiturak eta kantuak herriz herri

## Eskean ibiltzearekin lotuak daude gehienak

Euskal Herri osoan garai hauetan ospatzen den olentzeroaz gain, bertze ohitura bitxi bat ere mantendu izan da gure eskualdean; Urteberri edo urte zahar egunean etxez-etxe kantari eta eskean ibiltzea, alegia.

Oraingoak baino garai latzagoetan, intxaurrak, urrak, naranjak edo goxokiak eskatzea beharraren eta ohituraren artean kokatzen zen. Gaur egun beharra desagertu eta ohitura aldatu egin da, eskean datozenei dirutan ordaindu artio.



**Eguberri eguneko kantuak**

Hala ere, egun seinalatu hoietan kantatzen direnak biltzen saiatu gara, kontutan harturik herritik herrira abestiek izan ditzaketen aldaketa ttikiak. Izan ere, zaila baita bi herritan kanta bat modu berberean abesten aditzea, nahiz zenbait lekutan antzekotasun handiak aurki daitezkeen.

Urteberri egunean, Baztan eta Malerreka aldean batez ere, kantu hau errepikatzen dute umeek eskean dabiltzala:

Urte berri-berri
zer dakarrazu berri?
Uraren gañian,
bakia ta osasuna.
Urtetx, urtetx!

Urte zar
nik atorra zar
maukarik ez,
nik axolik ez

Aingeruak gara
zerutik heldu gara.
Boltsa badugu,
dirurikan ez dugu.
Urtetx, urtetx,
urtetxak nahi tugu!

Bortzirietan, berriz, eta zehazkiago Lesaka, Bera eta Igantzin, urtezahar egunean herriko karriketan barna eskean ibiltzen direnek, *Dios te salve* kantatzen dute. Bere osotasunean berdin berdina ez izan arren, lehenbiziko bertsoa berdina da hiru herrietan:

Dios te salve
ongi etorri
gabon jainkoak
dizuela
Legiarekin kunpli
dezagun
urte berriaren
bezperan

# Lezeta aita-semeen margolanak ikusgai Arizkunenean

## Abenduaren 13tik urtarrilaren 10era

Abenduaren 13an hasita heldu den urteko urtarrilaren 10 artio zabalik izanen da Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean Valeriano Lezeta eta Xabi Lezeta aita-semeen margo erakusketa. Kultur Etxeko ateak arratseko 7etatik 9etara zabalduko dira.

Aitaren margo gehienak abstraktoak dira, baina Baztango eta itsasoko irudiek ere bere tartea izanen dute erakusketan. Semearen margoetan berriz, Baztango irudiak ageri dira.



Valeriano Lezetaren margoa







# A



**APEZTEGIA, Unai**
Apirilaren 13an egin zuen profesionaletako debuta Elizondon atzelari aurtiztarrak. Bi urterako kontrata sinatua du Asegarcerekin.

**ARESO**
Sokatira taldeak 640 kiloko Nafarroako txapela irabazi zuen azpitxapeldun suertatu zen beste bi mailatan. Euskadiko txapelketan ere bikain aritu zen: Azpitxapeldun 600 kilotan.

**ARRETXEA, Kepa**
Hainbat urtez Berako pilota irakaslea izandakoari omenaldia eskaini zitzaion martxoaren 24an, herriko txapelketaren finalen ondotik. Arretxea zena pasaka jokua berreskuratzen ere saiatu zen.

**AURRERA**
Leitzako futbol taldeak Preferentera igotzea lortu zuen. Ez dute, itxura batean, maila aldaketa gehiegi sumatu, aurreko postuetan baitabiltza denboraldi honetan ere.

# B

**BAKERO, Jose Mari**
Donostiako Errealean eta Bartzelona futbol taldeetan hainbat urtez aritu den futbolari goizuetarra Mexikoko Veracruz taldera joan da. Aurretik omenaldi hunkigarria jaso zuen Nou Camp futbol zelaian.

**BARRIOLA, Abel**
Pilotari leitzarra Espainiako eskuz banakako txapeldun suertatu da jubenil mailan, Guadalajaran maiatzaren 12an Legorburu arabarraren kontra jokatutako finalean 18-9 irabazi ondotik.

**BETI GAZTE**
Kirol mailan urte ona izan da Lesakako taldearentzat. Sokatiran Nafarroako hiru txapel eta Euskadiko bi lortu dituzte. Futbolean Preferentera itzuli dira, lehen aldiz liga eta kopa irabazi ondotik. Halere, urte bukaera garratza izan dute, Jon Apezetxea jokalariaren heriotzarekin.

**BLAS, Mirian**
16 urteko mendi txirrindulari beratarra jeitsieretan espezializatu da. Aurtengoan, Kataluniako kopa junior mailan eta Euskadiko txapelketa irabazi ditu.

# D



**DONEZTEBE**
Baztan-Errekako laxoa liga txapelketa irabazi du hamargarren aldiz, ekainaren 23ko finalean Iruritari 9-5 irabazi ondotik.

# E

**ERRANDONEA, Rafael**
Nafarroako eskuz banakako txapeldun suertatu da Arantzako pilotaria jubenil mailan, martxoaren 17ko finalean Chafferi 18-14 irabazi baitzion.

**ETXEBERRIA, Josemanuel**
Hainbat urtez Osasuna futbol taldeko jokalaria izandako goizuetarra, Iruñeko taldearen bigarren entrenatzailea izendatu dute aurten.

**ETXEBERRIA, Patxi**
Nafarroa eta Euskadiko erremonte txapelak irabazi zituen atzelari doneztebarrak, aitzin koadroetan Martin Lekunberri lagun zuela.

**EZKURRA, Koteto**
Bingo-Londres erremonte txapelketa eskuratu du bigarren aldiz aurrelari doneztebarrak, finalean Jon Aizpururi 35-31 irabazita.

**EUGI, Eduardo**
45 kiloko belar fardoari hamazazpi jasoaldi eman ondoren, Nafarroako errekor berria ezarri zuen igantziarrak Iruñeko Peñen egunean.

# G



**GALARREGI, Asier**
Espainiako borroka grekoerromatar txapelketan hirugarren gelditu zen Oieregiarra. Nafarroako 21 urtez beheitiko judo txapelketan berriz, txapeldun suertatu zen 78 kiloko mailan.

# 199
# ki
# izen



**GARRO, Juan Carlos**
Grisley taldeko mendi txirrindulari beratarrak 5. Coronas saria eta Nafarroako txapela irabazi ditu. Halere, ez zuten Atlantako Joku Olinpikoetarako deitu.

**GOÑI, Mikel**
18 urte bertzerik ez zituela, otsailaren 17an debutatu zuen Oronozko pilotariak. Orain asentatzea falta zaio, adituek diotenez.

# H

**HERRIARTEKO Pilota txapelketa**
Goizuetako taldea azpitxapeldun suertatu zen, uztailaren 13ko finala Lizarraren kontra galduz. Txa-

# 6ko ol egia

ruta eta Leitzako taldeak ere finalerdietaraino ailegatu ziren. Osasun ederrean dago gure herrietako pilota.

## I

**IRAZOKI, Patxi**
Mendi txirrindulari igantziarra, Nafarroako txapeldunorde suertatu zen junior mailan, Obanosen egindako proban.



**IRIARTE, Nerea**
Judoka lesakarrak urte bikaina izan du. Gipuzkoako txapeldun senior mailan eta azpitxapeldun sub-19 mailan izan da. Euskadiko sub-19 txapelketan ere azpitxapeldun izan zen eta sektorekoan (Aragoi, Errioxa, Euskadi eta Nafarroa) txapeldun.

## L




**LARRETXEA, Donato**
Iaz bezalaxe, Nafarroako txapeldun eta Euskal Herriko azpitxapelduna suertatu da aurten aizkolari aranztarra.

## M



**MARIEZKURRENA, Idoia**
Jabalina jaurtitzaile labaiendarrak, Espainiako txapelketa irabazi zuen Malagan 55,02 metroko jaurtiketarekin. Herritarren omenaldia ere jaso zuen festetan. 1995ean Nafarroako kirolarik onena izendatu ondotik, aurtengoa ere ez da txarra izan.

## O

**OITZ**
Laxoa kopa txapelketa irabazi zuen, irailaren 7ko finalean Arraiozi 9-4 irabazi ondotik.



**OLAIZOLA, Asier**
Aurrelari goizuetarrak, apirilaren 13an debutatu zuen profesionaletan, Alti enpresarekin bi urterako kontrata sinatu ondotik. Aurten debutatu dutenetik hobekien ari dena da.

## P

**PILOTA**
Izendegi honetan ageri diren pilotari eta herriko taldeekin batera, hainbat berri on ekarri ditu kirol honek. Juantxo Apezetxea goizuetarra, Espainiako pilotari afizionatu onena izendatu dute eta profesionaletan bere maila azaltzen ari dira Retegi, Errandonea, Salaberria edo Taberna bezalako pilotariak.

## S

**SARALEGI, Mikel**
Markak xehetzen ari da harrijasotzaile leitzarra. Aurten 323 kilokoa martxoaren 24an sorterrian jaso ondotik, 324 kilokoa ere bizkarreratu zuen Diman maiatzaren 26an.

## T

**TOURRA**
Bigarren aldiz Frantziako txirrindulari itzulia eskualdean barna igaro zen, Izpegitik sartuz eta Saratik ateriz. Ez genuen Miguel Indurain horiz jantzirik ikusterik izan aurtengoan.

## U

**UMORE ONA**
Goizuetako elkartearen izenean Nafarroako Club arteko txapelketa eskuratu zuten Juantxo Apezetxea goizuetarrak eta Jesus Mari Almandoz lesakarrak. Finalean 22-21 irabazi zieten Okiñena-Mariezkurrenari.

## Z



**ZESTAU, Eusebio**
Urtarrilaren 27an jokatu zuen bere azken partidua Leitzako erremontelariak. Zestau II.ak 1979ko ekainean debutatu zuen eta 2.000 bat partidu jokatuak zituen geroztikan.

# AGENDA EGUNEZ EGUN

## ERAKUSKETAK

**BERA**

**▸ Abenduaren 21etik 29rat** Kultur Etxean Mendia gaiari buruzko Edergailu (margoak eta eskulturak) erakusketa. Abenduaren 21ean arratseko 7etan idekiko da eta ordu erdi beranduago 'Maldan Gora' dantza garaikide saioa izanen da.

## ANTZERKIA

**ELIZONDO**

**▸ Abenduaren 19an** arratsaldeko 3,30etan San Frantzisko Xabier ikastetxean Iruña Pequeño Teatro taldearen 'Jaberik gabeko zopa untzia' antzeslana.

**BERA**

**▸ Abenduaren 21ean** arratsaldeko 5etan Kultur Etxean Sambhu antzerki taldearen 'Izarretako nere laguna' antzeslana.

## KULTUR EGUNAK

**MALERREKA**

**▸ Abenduaren 26an** Arratsaldeko 5etan txontxongiloak izanen dira Saldiasen. Donezteben, egun berean, atsaldeko 6etan, 'Iruña Pequeño Teatro'k 'Jaberik gabeko zopa untzia' antzestuko du.

**▸ Abenduaren 27an** Sunbillan Ipuin kontalaria.

**▸ Abenduaren 28an** Iturenen, 'Lilien Lilura' antzestuko du Berako Lamixine BAT taldeak.

## BASERRIA

### ❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 8.700 pta.
- **Zerri gizena** (95-100): 188pta/kilo
- **Zerramak:** 135-140 pzta./kilo bizirik.

### ❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak:**
- **Idixkoak:** Pzta/kg. Kanal

| | |
|---|---|
| Extra | 520 |
| 1.koa | 500 |
| 2.koa | 470-480 |

- **Urruxak:** Pzta/kg. Kanal

| | |
|---|---|
| Extra | 540-530 |
| 1.koa | 520-510 |
| 2.koa | 480 |

Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.

- **Aretze ttikiak**

(15 egun ingurukoak):

**Nabarrak:** urruxak 13.000 eta idixkoak 23.000 Pta.

**Mestizoak:** urruxak 25.000 eta idixkoak 35.000 Pta.

**Behi zaharrak:**

Behi nabar gizena: 330 Pzta./ Kg. Kanal. Behi gorri ona: 340 Pta./Kg. Kanal.

Datu Iturria: **EHNE**

## HAMABOSTALDIKO GOMENDIOA

### *Koldo AMESTOY ipuin kontalariaren azken bilduma ikusgai, Saran*

Igande honetan, arratsaldeko lauetan, Koldo Amestoy kondalariak, Sarako Omordia salan eskeiniko duen emanaldira joateko aukera izanen duzue ipuinzale guziek. Gainera, ipuin saioa hasi aitzin «Atxuriatik Larrunerat» kultur hilabetearen barrenean prestaturik zegoen literatur lehiaketaren sari banaketa eginen da. Lehiaketa honetan 4 herrietako eskoletako haurrek parte hartu dute, *mendia* gaiari buruz euren lanak aurkeztuz. Erran behar da partehartze handia izan dela lehiaketan. Haur, ikasle, eta langabetuentzat, 10 liberakoa izanen da sarrera, eta 20koa gainontzekoentzat.

Bertzetik, gaur bertan Iruña Pequeño Teatro taldeak, «Jaberik gabeko zopa untzia» obra antzeztuko du Elizon-



**Koldo AMESTOY ipuin kondalari ezagunak bere azken sorkuntza, «Urdinola», aurkeztuko du Sarako Omordian**

Elizatze
ERLOJUTEGI BITXITEGIA
Nafarrentzat prezio bereziak
Landetxe Enparantza ✆ 943.492698 OIARTZUN

ttipi-ttapa Gida 96
Ez galdu sekulan begi bistatik.
Den-dena eskeintzen dizu!




SOULE
GURUTZEAK HILARRIAK
✆ 453038 ARIZKUN • ✆ 123572 IRUÑA

KONTSUMITZAILEENDAKO AHOLKUAK

# *Dirua etxean irabazten*



Egunkari edo etxean jasotako gutunez bidez jasotako lan eskeintza 'bikainen' atzetik enpresa ezezagunak izan ohi dira

Komunikabideetako iragarkietan gero eta ugariagoak dira lana egiteko eskaintzak, gauzak montatuz eta etxetik mugitu gabe diru franko irabaz dezakegula aipatzen dutenak, hain zuzen. Bertan, soldatarekin batera, postakutxa eta, batzuetan, telefono zenbaki bat ematen dute. Hainbertze diru irabazteko aukera ikusita, hara jotzen dugu, informazioa jasotzerakoan dirua eman behar dugula ohartuz. Gehienek amore ematen dute eta bertze batzuek, berriz, aurrera jarraitzen dute. Dirua bidali ondoren, lan eskaintza hori estafa dela edo ziurtatzen ziren diruak amets bihurtu direla ikusiko dute.

Gero, alferrik saiatzen gara telefonoz edo eskutitzez komunikatzen, gure mezuak gehienetan erantzunik gabe gelditzen baitira.

Iratxek eta Espainiako Kontsumitzaileen elkarteek auniztan salatu badugu ere, horri buruzko kexak eta galderak ugariak dira. Hori dela eta, eskeintza horiek nolakoak diren azaltzea dugu idatzi honen helburua. Hona hemen ikerketaren emaitzak:

1.- Eskaintzak idatziz egiten dira, baina gehienetan ez da enpresaren izenik agertzen, edo faltsoa da. Postakutxa eta erantzungailu baten telefono zenbakia ematen dituzte.

2.- Informazioan, diru aunitz irabazteko aukera "ezin hobea" eman eta lanaren baldintzak azaltzeaz gain, lan egiteko materialak eta gainerako informazioa jasotzeko bidali behar dugun dirua eskatzen digute.

3.- Diru dexente irabazteko aukerarekindiru gutti eskatzen dutela ikusita, batek baino gehiagok froga egiten du, dena inoxoen kontura dirua irabazteko trikimailu bat dela ikusiz. Gero, parte hartu nahi duenak, erantzun ezberdinak izan ditzazke:

• Estafa izatea: enpresak dirua hartu eta alde egitea.

• Errentagarria ez den lan aspergarri bat. Gustoko ez duten bitartean, ez dute lanarengatik ordainduko.

• Dirua irabazteko, guk ere horrelako lan eskaintzak bertzeei bidali behar izatea (piramide gisako lana).

• Lan egiteko aholkuak ematen duen manuala jasotzea.

Beraz, lan eskaintza guzietan inolako kontraturik ez izateaz gain, dirua aurreratzea eskatzen digute, guk garantiarik gabe dirua eskatzea onartezintzat hartzen dugularik. Kontuan hartzekoa da, dirua aurreratu beharrean lehenengo ordainketarekin kontuak egitea eskatu duenak ez duela erantzunik izan.

IRATXE KONTSUMITZAILEEN ELKARTEA

## AGENDA EGUNEZ EGUN

### ZINEA

**DONEZTEBE**

- **Abenduaren 21 eta 22an** 'La Red'.
- **Abenduaren 25ean** 'Dos policías rebeldes'.
- **Abenduaren 28 eta 29an** 'Coacción a un jurado'.
- **Urtarrilaren 4, 5 eta 6an** 'Tin Cup'.
- **Urtarrilaren 11 eta 12an** 'Tiempo de matar'.

### MENDI IRTEERAK

**BAZTAN**

- **Abenduaren 22an** Legatera joanen dira Baztango Mendigoizaleak (Gerardo Plazari omenaldia).
- **Abenduaren 29an** Baztango Mendigoizaleak Autzara joanen dira (Peio eta Ramonen omenaldia).

### IKASTAROAK

**ELIZONDO**

- Gurutze Gorriak, Anbulantzia Laguntzailea izateko ikastaroa antolatu du. Interesatuek deitu 452277 tfnora.

### GUARDIAKO BOTIKAK

061 Tfnora. deitu behar da

- **Abenduaren 16tik 22ra** Etxalar, Narbarte, Elizondo (Lezaun), Urdazubi eta Goizueta.
- **Abenduaren 23tik 29ra** Arantza, Doneztebe, Elizondo (Iturralde) eta Goizueta.
- **Abenduaren 30etik urtarrilaren 5era** Igantzi, Sunbilla, Elizondo (Lezaun), Leitza eta Goizueta.

BEIRA KRISTALDEGIA
'Climalit' kristal doblea
Ispiluak
Kristal biselatuak
Kristaldegia orokorrean
Agerra auzoa, harategi parean • BERA • © 630557

ttipi-ttapa Gida 96
Ez galdu sekulan begi bistatik. Den-dena eskeintzen dizu!

IKUSMENAREN BERRESKURATZEA
- Miopia
- Bista alfertua
- Estrabismoa
- Begi lausoak-kataratak

GIHARRE ARAZOAK
Bixkortzea
Artritia, erreuma
Artrosia, Lunbalgia
Bihurdurak, etab...

MAGNETISTA NATUROPATA
☎ 623055
San Marcial, 7-4 IRUN

ONDORIOETATIK INDARTZEKO
- Diabetia
- Asma
- Larru azaleko alergia
- Buruko mina
- Zizareak
- Oinen izerdia
- Prostata, etab...

KONTSULTA ORDUTEGIA
Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldez 2-7etara. Ordua eskatu
Zentru ez sanitarioa

**HIGIEZINAK SALTZEKO**
101. Etxeak
102. Etxebizitzak
103. Baserriak
104. Txaletak
105. Apartamentuak
106. Merkataritza-lokalak
107. Garajeak
108. Lurrak/orubeak

**HIGIEZINAK EROSTEKO**
111. Etxeak
112. Etxebizitzak
113. Baserriak
114. Txaletak
115. Apartamentuak
116. Merkataritza-lokalak
117. Garajeak
118. Lurrak/orubeak

**ESKUALDATZEAK**
121. Merkataritza-lokalak
122. Bertzelakoak
131. Etxeak

**zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...** Hegoaldetik deitzeko 948- Iparraldetik 00-34-48 **631188**

**...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!**

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapa**k ez du bere gain hartzen dohainik argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

**ERRENTAN HARTZEKO**
132. Etxebizitzak
133. Baserriak
134. Merkataritza-lokalak
135. Lurrak/orubeak
136. Bertzelakoak
141. Etxeak

**ERRENTAN EMATEKO**
142. Etxebizitzak
143. Baserriak
144. Merkataritza-lokalak
145. Lurrak/orubeak
146. Bertzelakoak

**ZERBITZUAK**
201. Hargin/Igeltseroak
202. Pintoreak
203. Elektrizistak
204. Iturginak
205. Zurginak
206. Osasun arlokoak
207. Mendi lanak
208. Gestoriak
209. Garraioak
210. Bertzelakoak

**LANA**
301. Eskariak
302. Eskaintzak

**IRAKASKUNTZA**
401. Eskaintzak
402. Akademiak

**MOTORRA**
501. Saldu
502. Erosi
503. Tailerrak
504. Bertzelakoak

**ANIMALIAK**
601. Saldu
602. Erosi
603. Eman
604. Klinikak

**DENETARIK**
701. Galdu/aurkituak
702. Salerosketak
703. Bertzelakoak

**HARREMANAK**
801. Agurrak
802. Deialdiak

## HIGIEZINAK SALTZEKO

### 102 ETXEBIZITZAK

**BERA.** Bi solairuko etxea salgai. ☎ 631422.

**IRUÑEA.** Pisua salgai Olite kalean. 80 m². Oso ongi dago. 14 milioi pezeta. ☎ 510167 (gauetan).

## HIGIEZINAK SALTZEKO

### 103 BASERRIAK

**DONAMARIA.** Baserria salgai, sotoa, lehen solairua (etxebizitza) eta ganbara. Borda ttiki bat badu berari itxekia eta larraina atarian. 150 m². Bengoetxeako Borda. ☎ 510540.

## ERRENTAN EMATEKO

### 142 ETXEBIZITZAK

**ITUREN.** Etxea errentan ematen da. ☎ 943-286685.

## ERRENTAN EMATEKO

### 144 MERKATARITZA-LOKALAK

**LESAKA.** Bi garaje plaza errentan ematen dira, Albistur karrikan. ☎ 637820.

**DONEZTEBE.** Lokala errentan ematen da herri erdian. 25 m². ☎ 943-286685.

## LANA

### 301 ESKARIAK

**Leitzan** edo inguruan lan egingo nuke. Haurrekin esperientzia daukat. ☎ 510169 (Izaskun).

**Emakume bat** edozein lanetan arituko litzateke Lesaka inguruan, haurrak zaintzen edo etxeko lanak egiten hobe. ☎ 637825.

## ZERBITZUAK

### 205 ZURGINAK


**zimeldi**
*Pareta armarioak eta bereizte manparak ate irristatzaileekin*
*Obrarik gabe!!*
Zimeldi • ETXALAR
✆ 948-387017


## ZERBITZUAK

### 210 BERTZELAKOAK

**Kartelak,** buzoiratzeko paperak, bisita txartelak, Faktura taloiak... egiten ditugu. ☎ 631188. Bulego orduetan.


*Mª Dolores Miñana*
**TOPOGRAFOA**
**NEURKETA • PLANOAK**
*Lur neurketak, Luberriak Plantazioak, etab...*
☎ 580143 - 989.445986
Santiago 68, 3. esk. ELIZONDO


## MOTORRA

### 501 SALDU

**Rieju 80 motoa** salgai. Egoera oso onean. 100.000 pezeta. ☎ 635136 (gaueko 10etatik aitzinera)

**Opel Kadet** 1.600 L.S. salgai. 75.000 km. NA-Z. ☎ 6310609.

**Citroen ZX** kotxea salgai, gasoilekoa, NA-AF matrikuladuna. Haize egokitua. ☎ 510558.

**Renault Super 5** kotxea salgai. NA-Z matrikuladuna. Egoera onean. ☎ 580022.

**Pegaso Iveco** kamioneta salgai, NA-AF matrikuladuna, gasoilezkoa, 4 urte eta 65.000 km. Abeltzainentzat prestatua.


**SAMPI ARAGON**
Bigarren eskuko autoak salgai. Ford Fiesta XR2, Suzuki luzea, Opel Corsa D, Renault Express, 2 Opel Kadet, Peugeot 205.
✆ 45 03 54 • DONEZTEBE






**Bidali** TTIPI-TTAPA **herritik kanpo bizi diren lagun edo familiakoei**

Bakar bakarrik bidaltze gastuak ordaindu behar dira. Eskatu informazioa.

✆ 631188

**22.000 pertsonek ikusiko dute zure anuntzioa hemen jartzen baduzu**

✆ 63 11 88

2.850.000 pta negoziagarriak. ☎ 451518-234830.

**Ford Escort** 1600 autoa salgai, gasolinazkoa, NA-W. 400.000 pta. ☎ 317238 (5etatik aitzinera, Kontxi).

**Lada Niva** 4x4, gasolinazkoa, salgai, NA-J.150.000 pta. ☎ 317238 (5etatik aitzinera, Kontxi)..

## MOTORRA

### 503 TAILERRAK

BOAN TAILERRA
CITROEN Banatzailea
AUTO BERRIEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
☎ 63 06 23 • BERA

MENDAUR MOTOR
✆ 450333 • DONEZTEBE
Suzuki Vitara laburrak eta luzeak, FordEscort eta Peugeot 205.
Tapizeriak garbitzen ditugu.

GANIX Tailerrak
Iturlandeta, 9 • ✆ 630669 • BERA
IBILGAILUEN MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATEA
FIAT Zerbitzua

## ANIMALIAK

### 601 SALDU

**Bi zakur** Pastor Aleman salgai. ☎ 450595.

**Ahari mutur gorria** eta adarrik gabea salgai. Lau urtekoa ☎ 627569. Igantzi.

**Ahari** muturgorria salgai, 3 urte. Arantzan. ☎ 634170.

**Zezen gorria**, pirinear arrazakoa salgai. Hiru urte terdikoa. ☎ 585068.

**Urtebeteko zakurra**, Pirinioko Mastin arrazakoa salgai, gorria eta xuria. ☎ 580746.

**Azpiko zaldia** salgai. Haurrendako aproposa. ☎ 450730.

**Zezena** salgai, Blonda arrazakoa (zuria). Lau urtekoa. ☎ 631098.

**Zerri gizena** salgai. ☎ 634067. Arantza.

**Zakur arra** salgai, bi urtekoa. Txuria eta marroia. Konpainia egiteko egokia. Hagitz goxoa. ☎ 634128.

**Urteko zerria** salgai, ordotsa. ☎ 510277.

**ADOS**
INMOBILIARIA AGENTZIA
*Julian Izura Nuin*

**BERA.**
- 110 m²ko pisu zoragarria salgai. Kanpoaldekoa.
- Etxe zoragarria salgai.
- Pisu batzuk errentan emateko.
- Azken duplex berri-berria salgai.
- 200 m²ko bajera komertziala salgai.

**LESAKA.**
- 60 m²ko bajera salgai. Arras prestatua.
- Etxe elkarri atxikiak salgai. Familiabakarrekoak.

**ETXALAR.**
- Pisu bat errentan emateko.
- Etxeak egiteko lur eremua salgai.

**IRURITA.**
- 140 m²ko etxea salgai.
- 350 m²ko etxea salgai.

**ELIZONDO.**
- Pisu merkea salgai.
- Pisu berria salgai (Braulio Iriarte karrikan).
- 400 m²ko bajera bat eta bertze batzuk salgai.
- Etxeak egiteko lur eremua salgai.
- Familia bakar eta bi familiendako etxeak salgai.

**ORONOZ-MUGAIRI.**
- Nabe-pabilioiak salgai.
- Kanpoaldeko pisua salgai. Arras ongi dago.
- Pisu bat errentan eman nahi da. Ongi dago.
- Oskorri liburudenda salgai.

**LEGASA.**
- Pisua salgai.

**NARBARTE.**
- Pisu haundi bat errentan emateko prest.
- Pisu erabilia salgai. Arras merkea.
- Pisua berria salgai.

**DONAMARIA (IGURIN).**
- Txaleta salgai.

**DONEZTEBE.**
- Pisu batzuk errentan emateko prest.
- Azken pisu berria salgai.
- Ostatu bat errentan eman nahi da.

**URROTZ.**
- Baserri bat errentan eman nahi da.

**ELGORRIAGA.**
- Pisu eder eta berria salgai, garajearekin.
- Familia batendako etxea errentan edo salgai.

**ITUREN.**
- Etxe eder bat bere lur eremuarekin salgai.

**ZUBIETA.**
- Borda bat errentan eman nahi da.
- Azken bi pisu berriak salgai.

**ERATSUN.**
- Baserria salgai.

**LEITZA.**
- Pisua salgai.

**ARESO.**
- Baserria salgai.

**LEKUNBERRI.**
- Baserria salgai.

Igeltsero, iturgin, elektrizista, zurgin eta pintoreak ditugu zure zerbitzura. Etxe-aldairak ere egiten dira, edozein egunetan.

**PREMIAZKOAK (EROSTEKO)**
- Zugarramurdi, Udazubi edo Etxalarren baserri edo etxe bat (25 milioi inguru).

**AUKERAK**
- Berako azken duplesa
- Oskorri liburudenda
- Legasako pisua 6.000.000 Pta. negoziag.
- Zubietako azken pisuak 8.000.000 Pta.
- Lesakako bajera 7.000.000 Pta.
- Elizondoko unifamiliar eta bifamiliarrak

**Modu askotako kontratuak egiten ditugu eta baita lege-arazoak konpondu ere. Badugu abokatua. Deiguzu konpromezurik gabe.**

*Telefonoak: 451841 / 908.778653 • Parrokia, 5-2. ezk. • DONEZTEBE*




## DENETARIK

### 701 GALDU/AURKITUAK

**Motxila**, laranja kolorekoa galdu da Beran. ☎ 630789.

## DENETARIK

### 702 SALEROSKETAK

**Balostra balkoi** eta **eskaleretako mazizoak**, bordadorak ateriak salgai. ☎ 635188 (eguerditan, 1,30etatik 2,30etara).

**Eguberrietako pinuak** salgai, aukeran, 1.000 pezetatan. ☎ 637810 (Patxi).

**Telebista salgai**, Grundig 25 pulgadakoa, kanale frantsesekin. ☎ 637217.

**Judo-Aikido edo Jiu-jitsu** egiteko traje bat salgai, ia-ia berria. 5.000 pezetan. ☎ 234830.

**Irratikaseta**, MX Honda markakoa, salgai, 7.000 pezetan. ☎ 234830.

**Obretako kablea** salgai. AC/Acrilon. 9,6 / 1Kv. 110 metro luze. ☎ 453335.

**Hiru eski-bota pare** sal-

# URTEBETETZEAK

**Sail hau dohanekoa da.**
**Norbait zoriondu nahi baldin baduzu, bidali bere argazkia eta datuak helbide honetara**

**ttipi-ttapa**
Urtebetetzeak Sailerako
Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA

*Argazkiak berreskuratu nahi badituzue, bidali zuen helbidea eta selloa ere, edo nahiago baduzue pasatu gure bulegotik.*



**Francisco Javier Agustino Jaunarena**k urteak bete ditu abenduaren 6an. Zorionak, andregaia, familia eta koinata beharraren partez.



**Laura Mitxelena Arriada** lesakarrak 6 urte beteko ditu abenduaren 22an. Zorionak guraso eta Iñigo, Josune eta Usoa anai-arreben partez.



**Josune Mitxelena Arriada** lesakarrak 7 urte bete ditu abenduaren 13an. Zorionak guraso eta Iñigo, Laura eta Usoa anai-arreben partez.



**Alexander Alzugarai Calvo** beratarrak 14 urte bete ditu abenduaren 5ean. Zorionak eta muxu bat Sunbillako familiaren partez.



**Jose Luis Baldanta Petrirena** elizondarrak abenduaren 15ean urteak betetzen ditu. Zorionak zure familiaren partez.



**Oihane Aldabe Etxeberria** igantziarrak 3 urte bete ditu abenduaren 11n. Aunitz urtez eta muxu haundi bat. Zure anai eta gurasoak.



**Olaia Igoa Mindegia** eratsundarrak urtea bete du abenduaren 11n. Zorionak guraso, osaba-izeba eta atautxi-amatxiren partez. Muxu bat.



**Pablo Landa Agirretxe**k abenduaren 11n bete ditu 8 urte. Zorionak!



**Aly Abuin Arrasate** lesakarrak abenduaren 26an 31 urte beteko ditu. Zorionak atta: Alex, Ander, Beñat eta Maryren partez.



**Michele Igoa** Elkokoak (Nevada) abenduaren 26an 2 urte beteko ditu. Zorionak Lesakako familiaren partez.



**Jose Gabriel Apeztegia Loiarte** doneztebarrak urte 1 bete du abenduaren 18an. Zorionak amatxi guraso eta Paularen partez.



**Itziar Etxarte Mikelestorena** etxalartarrak 15 urte bete ditu abenduaren 6an. Zorionak gelako eta taldeko lagunen partez. Jode, 15 urte!!



**Jaione Ordoki Elizondo** doneztebarrak 8 urte bete ditu abenduaren 14an. Zorionik beroenak gurasoen partez.



**Aitor Irazoki** beratarrak urtarrilaren 2an 22 urte beteko ditu. Zorionak zure lagunen partez.



**Ione Fagoaga Etxarte** lesakarrak urtarrilaren 7an 13 urte beteko ditu. Zorionak familiaren partez.



**Estibalitz Mañeru Jimenez** lesakarrak urtarrilaren 10an 3 urte beteko ditu. Zorionak anaia eta gurasoen partez.



**Luis Mari Pikabea Zubieta** beratarrak abenduaren 17an. Zorionak eta muxu haundi bat zuk dakizun tokian. Lesakako azukre koxkorra.



**Josu Inda Irigoien** doneztebarrak urtarrilaren 7an beteko ditu 4 urte. Zorionak gurasoen partez.



**Igone Oteiza Arretxea** sunbildarrak 19 urte bete ditu abenduaren 13an. Zorionak ahizpa, lehengusina eta A.A.ren partez.



**Naiara Lizasoain Zabaleta**k 7 urte beteko ditu urteberri egunean. Zorionak, gurasoen aldetik.



**Mª Carmen Mikelperizena Irisarri** beratarrak 10 urte beteko ditu abenduaren 30ean. Zorionak guraso eta lagunen aldetik.



**Pello Etxabide Garcia** beratarrak 8 urte beteko ditu abenduaren 22an. Zorionak eta egun ona pasa etxekoen eta behien partez.



**Ainhoa Zelaieta** beratarrak abenduaren 20an 5 urte beteko ditu. Zorionak zure familiaren aldetik.



**Itziar Igoa Txantre** beratarrak 18 urte bete ditu abenduaren 16an. Zorionak zure 2 despertadoreen partez: Maialen-Bittor



**Gorka Irigoien Iparragirre** etxalartarrak urtarrilaren 6an 6 urte beteko ditu. Zorionak Etxalar eta Igantziko familiaren partez.



**Jaione Irigoien Iparragirre** etxalartarrak abenduaren 16an 8 urte beteko ditu. Zorionak Etxalar eta Igantziko familiaren partez.



**Tere Fagoaga** beratarrak 52 urte beteko ditu abenduaren 25ean. Zorionak zure familiaren partez.



**Juanma Matxiarena** beratarrak abenduaren 21ean 20 urte gutti goiti beheiti beteko ditu. Zorionak muttiko!



**Fany Matxiarena** beratarrak urte pila bat beteko ditu abenduaren 29an. Zorionak ama!



**Alaitz Aguilar Lazkanotegi** beratarrak 2 urte beteko ditu urtarrilaren 7an. Zorionak!



**Ladis Satrustegi Altzugarai** lesakarrak 9 urte beteko ditu urtarrilaren 8an. Zorionak Blanka ahizpa eta gurasoen partez.



**Jesus Mari Almandoz** lesakarrak azaroaren 22 urte beteko ditu abenduaren 22an. Zorionak 'xapo-berri' Goizuetako kuadrila.

gai. 41 eta 43 neurrikoak, mendirako eta snowboard egiteko. Bertzea, 41 neurrikoa, 'Salomon' markakoa eta ski alpinoa egiteko egokia. ☎ 630466 (Jose Mª).

**Gasoileko depositoa** salgai, 500 litrokoa, 15.000 pezetan. 637317 (gauetan).

**Komertziorako apalategiak** eta bi mostradore salgai. ☎ 452083-637030.

**IRUÑEA.** Pertsona bat behar da pisua osatzeko Alde Zaharrean. ☎ 220830.

**IRUÑEA.** 2 neska behar dira pisurako NUP ondoan. Cipriano Olaso, 8-4.B.

**Baratza egiteko** lurra behar dut errentan. ☎ 943-557619.

## HARREMANAK

## 801 AGURRAK

**Ezkurrako** Oskar Teilletxeari eta Mirari Mariezkurrenari zorionak zuen urtebetetze egunarengaatik. Ezkurrako lagunen partez.




TELLETXEA MOBLEAK

## Moble erakusketa haundia

- Koltxoiak arras prezio onean, lehen mailakoak
- Estilo ezberdinetako mobleak: Luis Felipe, Provenzal, e.a.
- Neurrira ere egiten ditugu, edozein materialetan
- Pareta-armairuak ate korrederekin, egur edo ispiludunak

Rosa Seminario, z/g • ✆ 45 02 58 • **DONEZTEBE**





Erosketarengatik erregaloak ditugu!!



# BORDATXO

## EGUBERRIAK

**21** LARUNBAT — Nueva ETAPA

**25** ASTEAZKEN — "Eguberri Eguna" DISKOTEKA

**28** LARUNBAT — DISKOTEKA

**31** ASTEARTE — "Urtezahar Gaua" ELURTE

**4** URTARRILA LARUNBAT — Francisco Rivelles eta Bere Mariatxia

**5** URTARRILA IGANDE — "Errege Eguneko Gaua" DISKOTEKA

!ZORIONAK!